

## BIZITZA ETA LANA

Historian zehar, hainbat datu bilduz joan dira historialari eta ikertzaileak, Karmeldarrak batez ere. Bibliografian agertzen ditugu hartaz argitaratu diren idazlanak Baina datu biografiko ugariaren bildu eta argitaratu dituztenak Lino Akesolo eta Xabier Altzibar izan dira, besteak beste.

Dena dela, badira beste lan batzuk ere Frai Bartolomeri buruz; aipatzekoak dira, adibidez, A. Antonio Unzueta, Euskal Herriko Karmeldarren artxibozainaren argitaratu gabeko lan labur bat eta oharrak; guk haietaz baliatzeko abagunea izan dugu eta esker ona agertzen diogu bere paperak utzi dizkigulako.

Gure asmoa haren datu biografikoak bilatu eta haietan oraindik gehiago sakontzea da; hau da, haren nortasuna eta haren egintzak, bai Ordena barruan eta bai Ordenaz kanpo, argiago aurkeztea... hau guztiau hura bizi izan zen eta lan egin zuen garaia kontuan izanik, egokitu zitzaion egoera sozio-politiko eta erlijiosoa gogoan dugula beti ere, hau da, XIX. mendeko lehen bi hamarkadetan: Napoleon-en gerrak eta haien ondorioz jasán behar izan zuten komentuetatik kanporatzea, eta gero, gorbenu liberalen agintealdian, Frai Bartolome bizi zen komentua noiz itxiko zieten beti beldurrez egon beharra...

## 1. MADARIAGA-GARATE FAMILIA.

Euskararen klasiko den aldetik, Frai Bartolomeren garrantzia gogoan izanik, haren guraso eta aitona-amonen jatorria, eta famili giroaren berri jakitea egoki izango da.

Aitaren aldeko aitona-amonak (Joan Bautista Madariaga y Urtula Bidasolo) Markinan bizi ziren, baina Eibarko seme-alabak ziren. Amaren aldeko aitona-amonak (Santiago Garate eta Maria Kruz Arrieta) Etxebarrin bizi ziren, baina Elgoibarko seme-alabak ziren.

Dokumentu askotatik dakigu Bartolomeren aita Markinako zela eta ama Elgoibarkoa. Kosme Markinan jaio zen 1735. urtean gutxi gorabehera, eta 1754ko irailaren 26an hartu zuen sendotzako sakramentua<sup>1</sup>.

Bartolomeren gurasoak, Kosme eta Maria Ines Markinan ezkondu ziren 1766ko otsailaren 2an, eta Markinan bizi izan ziren. Dena dela, Etxebarrin ere bizi izan ziren garai batean. Seme nagusia Markinan<sup>2</sup> jaio zen 1766ko abenduaren 23an. Bartolome, berriz, Etxebarrin, Sagarminaga baserrian, jaio zen 1768ko abenduaren 21ean<sup>3</sup>.

Kosme Maria Ines Garaterekin ezkondu zen Xemeingo Andre Maria elizan 1766ko<sup>4</sup> otsailaren 2an, eta 6 seme-alaba izan zituzten; haietatik lau Xemeinen (Markina) jaiok (Sakoneta baserrian, ala Iturreta inguruko beste etxeren batean?) eta bi Etxebarrin (Sagarminaga baserrian): Joan Bautista (Markina, 1766-XII-23), Bartolome (Etxebarri, 1768-XII-21), Ignacia (Markina, 1772-I-20), Jose (Markina, 1775-III-3), Maria

<sup>1</sup> BEHA, Markina-Xemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 204<sup>a</sup> or.

<sup>2</sup> BEHA, Markina-Jemein, (26-01), Bataioak, 1752-1777, 120<sup>a</sup> or.

<sup>3</sup> BEHA, Etxebarria, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31<sup>a</sup>. Maria Inesek, Bartolomeren jaiotzarako, bere amaren laguntza nahiko zuela pentsatzea bezekoa da, eta horregatik joango zela Etxebarrira, han bizi baitziren beraren gurasoak, Santiago Garate eta Maria Kruz Arrieta.

<sup>4</sup> BEHA, Markina-Xemein, (28-03), Eskontzak, 1746-1836, 48<sup>a</sup>. Kosmek 30 urte zituen eta Maria Inesek 29.

Teresa (Etxebarri, 1778-VIII-21), Kristobal Pedro (Markina, 1782-VII-8).

Juan Bautista Madariaga (j.: Eibar, b.: Markina)		Joan Bautista Madariaga Garate (Markina - Xemein: 1766-XII-23 -)
Ursula Bildasolo (j.: Eibar, b.: Markina)	Kosme Madariaga (+ 1812) Joan Bautista Madariaga Garate (Markina - Xemein: 1766-XII-23 -)	<b>Bartolome Madariaga Garate</b> (Etxebarri: 1768-XII-21 - +Lazkao 1835-XII-11)
Santiago Garate (+ 1793) (j.: Elgoibar, b.: Etxebarri)	1766-II-2	Ignacia Madariaga Garate (Markina / Xemein, 1772-I-20)
M <sup>a</sup> Cruz Arrieta (+ 1791) (j.: Elgoibar, b.: Etxebarri)	M <sup>a</sup> Ines Garate (+ 1806) (j.: Elgoibar, b.: Markina/Etxebarri)	<b>Jose</b> Madariaga Garate (Barinaga, 1775-III-3.)
		M <sup>a</sup> Teresa Madariaga Garate (Etxebarri: 1778-VIII-21 - )
		<b>Kristobal Pedro</b> Madariaga Garate (Markina / Xemein, 1782-VII-8 - Logroño: 1805)

### **Hiru anaia eta hiru iloba karmeldar:**

Historian zehar, Frai Bartolomeren nortasuna azpimarratu izan dute, idazle eta semolari zen aldetik bereziki; baina ez dira aintzat hartu karmeldar izan ziren haren anaia. Noizbehinka aipatu izan dute beste anaia karmeldar bat, Jose San Migelena, hala ere bi anaia karmeldar izan zituen Bartolomek... Baina orain arte ia inork ez zekiena haren etxe-ko artean beste hiru karmeldar izan zirena da, hau da, Bartolomeren anaia nagusia zen Joan Bautistaren hiru seme ere karmeldar izan zirena.

#### **a. Jose Madariaga Garate (Fraile Jose S. Migelena).**

Jose Markina-Xemeinen jaio zen 1775ko martxoaren 3an, Barinagako elizan<sup>5</sup> bataiatua izanik. 1792ko ekainaren 16an hartzen du abitua La Isla-n (Sestao), 17 urte zituela.

<sup>5</sup> BEHA, Markina-Barinaga, (03-03) Bataioak, 1714-1781, 221: "En tres de Marzo de mil setecientos y setenta y cinco yo D<sup>o</sup> Pedro de Aguirre Amalloa Cura Rector de S<sup>a</sup> Pedro de Barinaga Jurisdiccion de la Villa de Marquina Bautizé"...

1820ko apirilaren 23an Lazkaoko<sup>6</sup> priore izendatzen dute. Ondorengo hiru urteetan (1824-1826) nobizioen maisu<sup>7</sup> kargua izan zuen. Hurrengoan Lazkaoko<sup>8</sup> komentukoa eta bertako sermolaria izaten jarraituko du. 1829-1832ko hiru urteetan... Badakigu moraleko<sup>9</sup> irakasle ere izan zela. 1852ko apirilaren 10ean hil zen, Olaberrian behin-behineko bikario<sup>10</sup> zela.

Datu labur hauetatik, Joseren izaera eta haren anaia Bartolomerena antz-antzekoak zirela ateratzen dugu: ekintza eta kargu berdinak dituzte biek; dirudienez, antzeko gaitasunak zituzten: biak izan ziren predikariak ofizioz; biek izan zituzten priore eta nobizioen maisu karguak; frantsesestearen ondoren, biek saiatu ziren komentuz berriro jabetzen eta baita lortu ere (Bartolomek Markinako komentua berreskuratzen du, eta Josek Lazkaokoa).

#### b. *Kristobal Pedro (Frai Pedro S. Joserena).*

Bartolomeren anaia gazteena zen Kristobal Pedro Madariaga; honen berri askorik ez dakigu, gazterik hil zelako. Markinan jaiotzen zen 1782ko<sup>11</sup> ekainaren 8an.

Lazkaoko nobiziatuan sartu zen 1800go<sup>12</sup> abenduaren 10ean... Filosofiako ikasle zela hil zen 1803ko maiatzaren 30ean Logroñon, bularretiko jarri eta gaitzak txarrera egin ondoren ("un tabardillo complicado de mal de pecho"<sup>13</sup>).

<sup>6</sup> GKPA, *Libro de Fundación... de Lazcano*, 45-46<sup>a</sup> or.

<sup>7</sup> GKPA, *Habitos - Prov. Navarra O.C.D.*, 1789-1825, 97<sup>a</sup>-110<sup>a</sup>; GKPA, *Habitos - Prov. Navarra O.C.D.*, 1825-1833, 1-45.

<sup>8</sup> GKPA, *Libro de Recibo de este comu<sup>o</sup> de Car Descalzos de Lazcano, comienza año de 1814*.

<sup>9</sup> IEA, Caja 115, n<sup>o</sup> 1. A.

<sup>10</sup> DEA, Olaberria, 1/4/1 (Libro de finados, 1774-1870), 113<sup>a</sup>.

<sup>11</sup> Markina-Xemein, (02-01) Bataioak, 1777-1796, 48<sup>a</sup>.

<sup>12</sup> GKPA, *Habitos - Prov. Navarra O.C.D.*, 1789-1825, 43<sup>a</sup>.

<sup>13</sup> LOKA, *Libro de la Fundación... de Logroño*, n<sup>o</sup> 168.

### c. *Hiru iloba karmeldarrak.*

Bartolomereren anaia zaharrena, Joan Bautista, Josefa Maguregirekin ezkondu zen Xemeingo Andre Mariaren elizan 1791ko<sup>14</sup> ekainaren 12an. Zortzi seme-alaba izan zituzten. Lehenengo laurak Xemeingo Andre Mariaren elizan bataiatuak izan ziren eta gainerako laurak Bolibarren: Jose Esteban (1792), Maria Teresa (1795), Josefa (1796), Jose Manuel (1799), Joan Andres (1801), Angel Frantzisko (1804), Maria Estefania (1806), Antselmo (1809).

Zortzi hauetatik lehenengoa, Jose Esteban, bosgarrena, Joan Andres eta azkenengoa, Antselmo karmeldar egin ziren, hiru osaben biderei jarraituz.

## 2. BARTOLOME MADARIAGA GARATE: HAURTZAROA ETA GAZTAROA.

### *Etxebarrin jaio eta Markinan bizi izan zen*

Bartolome Etxebarri udalerrian jaio zen 1768ko abenduaren 21ean, San Andres Etxebarriko eliztarra izanik. Honela dio bataioko agiriak:

*"En veinte y uno de diciembre de mil setecientos sesenta y ocho, yo D. Joseph de Arribalzaga cura de la Yglesia Parroquial de S<sup>o</sup>. Andrés de Echavarria bautizé en ella a un niño, que le puse por nombre Bartolome, (que nació a las diez de la mañana del mismo día) hijo legítimo de Cosme de Madariaga, y María Inés de Garate su legitima muger, naturales él de Marquina y ella de Elgoibar, y a la sazón vecinos y parroquianos de esta vila de Marquina. Abuelos paternos: Bautista de Madariaga y Ursola de Vildasolo su muger, naturales de Eybar, y parroquianos de Marquina. Maternos: Santiago de Garate, y María Cruz de Arrieta su muger, naturales uno y otro de Elgoibar, parroquianos de Marquina-Echavarria"*<sup>15</sup>. Sakoneta baserrian jaio zan.

<sup>14</sup> BEHA, Markina-Jemein, (28-03), Eskontzak, 1746-1836, 122. or.

<sup>15</sup> BEHA, Etxebarria, (07-02), Bataioak, 1762-1821, 31<sup>a</sup>.



Ez dugu berri zuzenik haren haurtzaro eta gaztaroko garaiaz, baina zeharkako berri batzuekin, herriko bizitzari buruzkoekin, hurbil gintezke hark gaztaroan bizi izan zuen errealitatera...

Lehenago esan dugunez, Bartolomeren gurasoak etxe bat baino gehiagotan bizi izan ziren. Ziurrenik, Bartolome amaren aldetiko aitona-amonon etxean jaio zatekeen, gaur egun desagertua den eta Etxebarrikoa zen Sagarminaga baserrian; Etxebarriko bizilagunen zerrenda batean, 1770eko martxoaren 15eko data duenekoan, hots, Bartolome jaio eta urtebete baino pixka bat gehiagora egindakoan, honako hau dator: "Santiago de Garate inquilino de Sagarminaga"<sup>16</sup>. Baña Sakoneta baserrian (Markina-Xemein) bizi izan zan<sup>16</sup>. Eta amaren aldeko haren aitona-amonak hil daitezenean, 1791n eta 1793an hurrenez hurren, Sagarminagako hilobian<sup>17</sup> emango zaie lurra.

Ezbairik gabe, karmeldar ospetsua izango zenaren gaztaroa Markinako karmeldarrekin harreman estuan izango zen. Alde batekik, fraideen bizitza sozio-erlijioso kulturalaren oihartzuna komentuan eta Karmengo elizan nahiko aintzat hartzekoa zen.

Markinako Karmeldarren fundazio-data 1691koa, eta hango eliza berriaren estreinaldia 1724an<sup>18</sup> izan zen.

Baina, beste aldetik, fundazioaren hasieratik esango genuke, Karmeldarren arduetariko bat izan ohi zen urtero Xemeingo parrokiari sermoiak egitea, udaleko urteroko kontuetan<sup>19</sup> behin eta berriro agertzen denez... Sermoiak egiteaz gain, hasiera-

<sup>16</sup> EUA, caja 209

<sup>16</sup> EVA, caja 209: 1770. urtean: "Cosme de Madariaga inquilino de Saconeta".

<sup>17</sup> BEHA, Etxebarria, (07-01), Ilak. 1784-1865, 9<sup>a</sup>, 10<sup>a</sup> or.

<sup>18</sup> Julen Uzkiza, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornoza, 1992, 42-57.

<sup>19</sup> Esaterako, XVIII. Mendean, 1702, 1704, 1706 eta abarretan. MUA, *Libro de decretos...* 1689-1708, 224, 269, 269-270, 301. or. eta abarretan; eta geroago, MUA, (C. 30), *Libro de Quentas...* 1747-1789, 1, 6, 14, 23, 28, 32, 36, 42, 44, 47, 49, 55, 62, 74, 77, 82, 86, 93, 100, 108, 111, 121, 129, 134, 142, 195, 203, 209, 210, 216, 225, 229, 236, 238, 241, 245, 251, 270, 271... or.



*Sakoneta baserria.*

hasierarik, saiatzzen ziren fraideak aitortzako sakramentuaz eta hil zorian zirenei elizakoak eman eta laguntzeaz, herriari bere beharrizanetan leialki erantzunez<sup>20</sup>.

Apostolutzari dagokionez, eliza Karmengo Amarena izanik, Andre Mariarenganako debozioa, eta bereziki Karmengo Amarenganakoa, zabaltzea izan da fraideen lanaren xedea. Bartolomek 6 edo 7 urte zituenean, 1775 inguruan, debozio handia zen; udala, aktetan agertzen denez, Karmen jaian biltzen zen jendetza handiaz kezkataturik zegoen; hainbesteko jendetza etortzeak ardura handia sortuz eta herrian zegoen gari apurra amaitzeko arriskua ikusirik, udalak hilaren 12an, azteazkenean, prezioei zegokienez, okinei uztailaren 15-17ko larunbata-astelehenerako arauak eman zizkien<sup>21</sup>.

<sup>20</sup> GKPA, Markina 3, Antonio Idiakez jaunak Bartolome Ramirez jaunari egini-ko gutuna, 1722-III-14.

<sup>21</sup> MUA, *Libro de decretos...* 1768-1778, 253<sup>v</sup>-254<sup>r</sup>. (MKA, A-I-50).



Hain zuzen ere, Bartolomek 9 urte zituela, 1777an, sortu zuten Markinako Karmengo Amaren kofradia<sup>22</sup>. Kofradia honen helburua, Andre Mariarenganako maitasunaren eta santifikazio-bidearen ezaugarri gisa, Eskapulario Santuaren debozioa bizi eta zabaltzea izan zen. Izan ere, kofradiako kideen liburuan milaka izen datoz, Bizkaiko herririk gehienetakoak, eta baita Gipuzkoako askotakoak ere. Eta Markinan Karmengo Amaren maitale eta kofradiako kideen artean Bartolomereren aitaren izena ageri da: "Cosme de Madariaga"<sup>23</sup>.

Bartolomereren haurtzaroan, Markinako Karmeldarren komentua fraide ugari zituen; 1777. urtean 29 ziren guztiz, 23 mezako eta 6 anaia ez-mezako<sup>24</sup>.

### 3. KARMELDAR: NOBIZIATUA ETA IKASKETAK (1789-1799).

#### a. *Nobizio Korellan (1789)*

Izan ere, etxeko eta herriko erlijio-giro honetan, eta Karmeldarrek eragindako Andre Mariaren, zehatzako esanik, Karmengo Amaren deboziozko giro horretan, erakarpen berezia somatuko zuen

Bartolome gazteak Karmengo Ordenan sartzeko gogoia zuen; eta, beraz, latin ikasten ere jardungo zuen, ziur aski

<sup>22</sup> Karmengo komentuko antzinako dokumentazio aberastetik, frantsesean galduta zenetik, hain zuzen ere, eskuizkribu preziatu bat gorde zen, dokumentu zehatz hau dakarrena: *Libro de la Archicofradía de N.M. SS<sup>as</sup>. Del Carmen. Fundada en este conv<sup>to</sup> de Marquina. A. De 1777. Por Comisión de N.M.R. Glenerall F. Frar<sup>o</sup> de la Presentación*, [24]. or. 1k. ondorengo hau ere: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 68, 375-378. or.

<sup>23</sup> MKA, *Libro de la Archicofradía*, 29<sup>a</sup>. Orrialde berean, lerro bat geroago, dator kofradiako kideen artean "D<sup>a</sup> Vicenta de Moguel", eta orrialde berean irakurtzen dugu "D<sup>o</sup>. Juan Antonio Moguel" ere.

<sup>24</sup> MKA, *Libro de la Archicofradía*, 24<sup>a</sup>.

Karmengo fraideren batekin; koruko izateko asmoz nobiziatuan sartzeko latin<sup>25</sup> jakin beharra baitzegoen.

20 urte zituela, 1789.eko otsailean dei egin zuen Korellako karmeldarren nobiziatuko atarian. Eta hilabetean hango bizi-modua probatuz, karmeldar abitua hartu zuen 1789ko martxoaren 18an. Gertakari hau dakarren agiriak hari buruzko berri batzuk ere badakartza:

*"El Hermº. Fr. Bartholome de Sº Theresa qº en el siglo se llama ba Bartholome de Madariaga, Hijo legitimo de Cosme de Madariaga (natural de Marquina) y de Maria Ines de Garate (natural de Elgoybar) vecinos y Parroquianos de la Villa de Marquina, Obispado de Calaborra, tomº el Sº Habito para corista (haviendo precedido un mes de observacion, bechas y aprobadas las Informaciones) oy día diez y ocho de Marzo de mil setecientos ochenta y nueve entre cinco y seis de la mañana, teniendo de edad veinte años y dos meses; y para qº conste lo firmé en este Sº Noviciado de Carmº. Descalzos de la Ciudad de Corella dho día, mes y año. Fr. Manuel de Sº. Joaquin, Mtro. de Nouficio*s<sup>26</sup>.

Han izan zuen komentu-bizitza nolakoa zen antzematea erraza da, garai hartako legeek zehatz-mehatz adierazten baitute. Egin-eginean ere bi urte lehenago argitaratu ziren Konstituzioak<sup>27</sup>.

<sup>25</sup> Constitutiones, 107.or: "Nemo ex iis, qui Choro deputantur, admittatur, nisi linguam latinam sciat, ita tu possit facultatem aliam profiteri". (Urte batzuk geroago, klausotrik kanporatuak zeuden garaian, haren anaia Josek latin irakatsiko zien mutikoei... MUA, C, 20 (*Libro de decretos...*), 134ª, Jose San Migelenak Markinako Udalarari egindako gutuna, 1812-II-27.

<sup>26</sup> GKPA, *Hábitos Prov. de Navarra. O.C.D.: 1732-1834*, 172. or.

<sup>27</sup> *Constitutiones Fratrum Discalceatorum Beatissimae Virginis Mariae de Monte Carmelo primitivae observantiae. Congregationes Hispaniae, a S.S.D.N. Papa VI. Confirmatae die XIV. Martii Anno M.DCCC.LXXXVI. Pontificatus sui anno duodecimo*. Madrid, 1787, 412 orr. Obra honen gaztelaniazko itzulpena urtebete geroago agertuko zen: *Regla kprimitiva y constituciones de los religiosos descalzos de la Orden de Nuestra Madre Santísima la Bienaventurada Virgen María del Monte Carmelo, de la Primitiva Observancia. En esta Congregación de España, e Indias, Confirmadas por*

Erlijosoen bizitza hau eta bereziki nobizioena, laztasun ingurumari batean beti ere, otoitzak markatua zen; bi erataria egindako otoitzak: orduen liturgiako otoitza eta barneko otoitza. Eguneroko bi ordu eman ohi ziren barneko otoitzean, goizean ordubete eta arratsaldean<sup>28</sup> beste bat. Komunitateko mezan emandako denboraz gainera, orduen liturgian beste bi ordu eta erdi ematen zituzten. Honela banatzen ziren orduen liturgiako otoitzaldiak: maitinak edo irakurgaien ordua gauerdian, goizean gorespenak eta "lau ordu txikiak", eta arratsaldean bezperak eta kompletak edo arratseko otoitza<sup>29</sup>. Nobizioen eguneroko bizitza koruko otoitzaz, gelako bakarraldiaz, nobizioen maisuak ematen zituen irakasaldi eta abarrez osatzen zen.

Ez dago esan beharrik Santa Teresaren idazlanak maiz izango zituela esku artean, geroago bere idazlanetan aipatzen dituelarik, eta Joan Gurutzekoarenak ere bai ...

Nobizioen bizitza etxeko hainbat lan eginez eta erlijio eta karmeldar bizitzari buruzko irakaspenak jasoz zihoan aurrera. Nobizioen maisuak espiritualki haiek zuzentzeko eginkizun garrantzitsua zuen. Irakaspen horiek hainbat alde<sup>30</sup> izan ohi zituen: legeak eta Ordenako ohiturak irakastea, erlijio-eginbideetan zintzoa izateko eta botoak betetzeko gogoia berotzea; baina nobizioei bizitza espiritualaren berri izaten eta norbere bokazioa ezagutzen ere laguntzen zien.

#### b. *Filosofia eta teologiko ikasle (1790-1799)*

Bartolomeren bizitzan badira beraren berri gutxi ditugun garaiak, eta berezko denez, horrelakoa izan zen ikasle zenekoa. Hala ere, orduko legeen jarraibideen harira atera genitzake ha-

*N.M.S.S. P. y S. Pio Papa VI, en el día 14. de Marzo del año de 1786, año duodécimo de su Pontificado. Traducidas del idioma latino al Castellano. Madrid, 1788, 626 (?) or.*

<sup>28</sup> *Constitutiones...*, 28. or.

<sup>29</sup> *Constitutiones...*, 20, 22, 24. or.

<sup>30</sup> *Constitutiones...*, 104-114. or.

ren bizitzako gauzarik funtsezkoenak; hau da, zer ikasi zuen eta non ikasi zuen.

Hiru urterik behin izendatzen ziren ikasleak eta irakasleak. Legeek hiru ikastetxe izatea eskatzen zuten: a. filosofiakoa, b. teologia eskolastikokoa, eta c. teologia moral eta zuzenbide kanonikokoa<sup>31</sup>. Eta beharrezkotzat jotzen zen hiru ikastetxe horietako prioreak jakintsuak eta letretan<sup>32</sup> jantziak izatea. Egin-eginean ere, 1790.ean kapitulu probintziala egin zen, eta horren ondoren Probintzial eta honen aholkularien batzarrean erabaki ziren ikasketako kurso berriak, hau da, ikastetxeak, irakasleak eta abar. Horrela izan ziren, bada, Frai Bartolomeren ikasketetako bederatzi urteak:

aa) *Karmeldarren ikasketak XVIII. mendearen bigarren erdian, eta baien berrikuntza.*

Espainiako Kongregazioko Karmeldarrek filosofia eta teologiako maisu bikainak izan zituzten; Akinoko Tomas santuaren lan nagusia oinarritzat hartuz, *Complutense* eta *Salmanticense* kursoetako lan handiak prestatu zituzten liburuki ugari eta marduletan. Obra izugarritzko honen laburpena egin zen gero hiru hauen artean: *Complutensearen* laburpena Joan Iragarkundekoak<sup>33</sup> egin zuen bost liburukitan, eta *Salmanticensearena* bi euskaldunek egin zuten: *Salmanticensearen* dogmatika partea nafar batek laburtu zuen lau liburukitan, Paulo Sortzez Garbiarenak (1634-1707)<sup>34</sup>; *Salmanticensearen* moral partea, berriz, Antonio San Joserena bizkaitarrak (1716-1794), bi liburukitan<sup>35</sup>.

<sup>31</sup> *Constitutiones...*, 120 or.

<sup>32</sup> *Constitutiones...*, 121 or.

<sup>33</sup> *Collegii Complutensis Fr. Discalceatorum B.M. de Monte Carmelo artium cursus, ad breviorum forma collectus et novo ordine atque faciliori stylo dispositus*, Coloniae 1693. (Lyon 1670, Colonia 1732)...

<sup>34</sup> *Tractatus theologicus juxta D. Thomae et cursus Salmanticensis Fratrum Discalceatorum...*, Madrid, 4 t., 1722-1729.

<sup>35</sup> *Compendium Salmanticense in duos tomos distributum universae theologiae moralis...*, Romae, 2 t. 1779; (Pamplona, 1779; Pamplona 1797).

*Estudioen Erreforma berrian* Irakasleei hainbat gomendio egiten zaie; hauen artean, iturrietara jotzea, Platon, Aristoteles, Zizeron, Seneka eta Plutarko irakurtzea antzinakoen artean, eta modernoen artean Vives, Frantzisko Bacon, Gassendi, Newton, Leibnitz... Ikasliburuei dagokienez, filosofian Goudin gomendatzen zen; teologian, berriz, Akinoko Tomas santuaren *Summa*, eta beste teologi gai batzuetan Melchor Cano edota Gaspar Juenin; teologia moralari dagokionez, Tomas santua aipatzen da, baita Gennet, eta A Natal Alejandro ere; erretorikan Frai Luis Granadakoa... Eliz Gurasoak (Patrologia), Eliz Historia, Eskritura Santua etab. aztertzea azpimarratzen da<sup>36</sup>.

Egitasmo honek aldakuntza garrantzitsua eragin zuen Ordenako ohituretan eta tradizioan: *Salmanticenseak* utzi eta haien ordeztuak autore berriagoak aintzat hartzea ekarri zuen... Ondorioak onak izan ziren. Ordenako Jeneral berriak, Andres Igozundekoak, balantzea egin zuen 1785.eko zirkular batean...

bb) *Filosofiako ikasle Logroñon eta Ordena Sakratuak hartzea (1790-1793)*.

Bartolomeri zegokion Karmeldarren Probintziak Logroñon zuen filosofiako ikastetxea. Nobiziatua bukatu eta beste hilabete batzuk igaro ondoren, Errioxako hiriburura joan zen ikasketak hastera. Komentu hau 1628ko irailean fundatua zen; lehenengo nagusia, hemen, A. Frantzisko San Elíasena<sup>37</sup> izan zen.

<sup>36</sup> Ikasketen berrikuntzaz ikus: SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo en España, Portugal y América*, 12.t., Burgos, 1944, 289-319. Alberto PACHO, *El P. Manuel de S. Tomás (Traggia) 1751-1817, último historiador oficial del Carmelo Teresiano en España*, Roma 1979, 66-84. Purificación GATO CASTAÑO, *La educación en el virreinato del Río de la Plata. Acción de José Antonio de San Alberto en la audiencia de Charcas, 1768-1819*, Zaragoza, 1990, 31-38.

<sup>37</sup> LOKA, A-II-2 (fotokopia, originala BASn): *Libro de fundación...*; SILVERIO DE SANTA TERESA, *Historia del Carmen Descalzo...*, IX.t., Burgos, 1940, 436-442.

Ikasturtea irailaren 30ean, San Jeronimoren egunean, hasten zen eta Mendekoste bezperan<sup>38</sup> bukatu. Garai hartan Arteak eta gaur egun filosofia deitzen diren hiru urteko ikasketa hauetan, garrantzi handikoa zen ikasten eta pentsatzen irakastea: "a leer con método, a meditar, reflexionar y conferenciar de un modo juicioso las doctrinas estampadas en los libros, y trasladadas a la memoria"; garrantzitsua zen dialektikan aditua eta trebea izatea erreerei<sup>39</sup> bidea eragozteko.

Irakasleek metodo eskolastikoaren beharraz jabetzen eta eztabaida intelektualetan nola jokatu behar den irakasten zien ikasleei. Honetaz ongi zetorren Vives, Mabillon, Libero eta Frai Joan Jesus Mariarenak irakasten zutena. Helburua egia aurkitzea zen. Eta horretarako bideak hauek ziren: "el estudio incesante que ha de preceder a las disputas; la conferencia juiciosa que debe acompañarlas; la ingenuidad y buena fe de parte del que arguye, y del que sustenta"<sup>40</sup>.

Urte hauetan Frai Bartolomek hizlaritzako artea ikasten du. Ikasleek sermoiak idatzi behar zituzten eta, trebakuntzarako, lagunen aurrean aldarrikatu. Horretarako, Frai Luis Leongoaren *Retórica* ikasten zuten. Egoki hitz egiteko arteak gramatikan, filosofian eta erretorikan jantzia izatea eskatzen du; hau da, hitz-etorria, arrazoï onak, apainduria ("supone la gramática, la Filosofía, y la Retórica: esto es, palabras, sentencias, y adorno"<sup>41</sup>). Ariketa hauek oporraldietan egin ohi ziren, ikasturtean zehar ikasitakoa osatzeko<sup>42</sup> abagune ona baitzen.

<sup>38</sup> *Constituciones...*, 126. or.

<sup>39</sup> *Instrucción de los colegios...*, 34. or.

<sup>40</sup> *Instrucción de los colegios...*, 39. or.

<sup>41</sup> *Instrucción de los colegios...*, 44. or.

<sup>42</sup> *Instrucción de los colegios...*, 45. or.: "En el mismo [tiempo de vacaciones] podrá el Lector instruir a sus Discípulos en aquellas reglas de Crítica que faltan al curso del P. Goudin, y que se hallan en las Lógicas del P. Roselik, y de N.Fr. Tomás Aquino de la natividad: Autores que no ha de separar de sí el P. Lector de Artes, porque debiendo caminar nuestra literatura con la del siglo que no alcanzó el P. Goudin, ellos podrán suplir su falta".

Bartolomek Kalahorran eta Logroñon hartu zituen Ordena Sakratuak (1790-1792). Apaizgintzako sakramentua 1792ko abenduaren 21 edo 22an hartu zuen Logroñoko<sup>43</sup> Agustindar lekaimeen komentuko elizan, Frantzisko Mateo Agiriano apezpikuaren eskutik; Bartolomek 24 urte eta egun bat zituen.

cc) *Teologia Iruñean (1793-1796) eta Burgosen (1796-1799)*.

Bartolome Iruñera joan zen Teologia Eskolastikoa eta Eskritura Santua ikastera. Eta ikasturtea 1793ko irailaren 30ean, San Jeronimo egunez, hasten zen.

Iruñeko komentua Ordenako ikastetxe nagusia izan zen bost garaitan (1682-1809, 1816-1836, 1900-1916, 1930-1948, 1961-1964)... 1682.ean<sup>44</sup> bilakatu zen lehen aldiz teologiako ikastetxe...

Teologiarako Probintziako Definitorioak hiru irakasle hautatzen zituen, baina hautaketa hau egin orduko, lehiaketa literarioak izaten ziren. Bik teologia eskolastikoa azalduko zuten, eta hirugarrenak Eskritura Santua. Hemen Akinoko Tomas santuari jarraitu behar zioten batez ere; alde batetik haren *Summa*, eta bestetik Eskriturari buruzko haren doktrina... Azken honi dagokionean, Trentoko Kontzilioak<sup>45</sup> irakatsitakoa hartu behar zen aintzat<sup>46</sup>. Baina ondorengo hauek ere gomen datzen dira: Diego S. Antoniorenaren Eskritura Santuko eskuliburua eta Melchor Cano-ren<sup>47</sup> "lugares teológicos".

Teologia Eskolastiko eta Eskritura Santuko hiru urteak Iruñean bukatu ondoren, Bartolome Burgosera joan zen Teologia Morala eta Zuzenbide Kanonikoa ikastera. Ikasturtea 1796ko irailaren 30ean hasten zen, S. Jeronimo egunean.

<sup>43</sup> CEA, 9/401: *Libro de Registro ordenes...*, 41'.

<sup>44</sup> Ik. Joaquin M<sup>a</sup> MAQUIRRIAIN, *Historia de los conventos de carmelitas descalzos en Pamplona*, Pamplona, 1994, 221-227.

<sup>45</sup> Ik. Joaquin M<sup>a</sup> MAQUIRRIAIN, *Historia de los conventos de carmelitas descalzos en Pamplona*, Pamplona, 1994, 221-227.

<sup>46</sup> *Constitutiones...*, 130-131. or.

<sup>47</sup> *Constitutiones...*, 131. or.

Moraleko ikastetxe honetako jokaera, ikasketa-erari dagokionez, filosofia eta teologia eskolastikoan egiten zenaren antzekoa zen. Hemen ere hiru irakasle zeuden Probintziako Definitorioak izendatuak, hauek ere lehiaketa antzeko bat egin ondoren hautatuak. Haietatik bik teologia morala irakasten zuten, eta besteak Zuzenbide Kanonikoa. Eta guztia Eliz Gurasoen eta, bereziki, Akinoko Tomas santuaren doktrina jarraituz.

Instrukzioak zertzelada gehiago agertzen ditu. Lehenago buruz ikasteaz esan dena Moraleko<sup>48</sup> irakasleei berriro eta bereziki gogorarazten zaie gai honetan; muina eta gaia menderatzeak egiten dituela handi Moralistak.

Egitasmo berrian legegintza modernoaren aurterapena aitortzen da... Zuzenbide Kanonikoa ikasterakoan, Joan Lorentzo Selvagio-ren<sup>49</sup> "Instituciones Canónicas" jarraitzea gomendatzen da... Ekintza akademikoak edo tesiak defendatze-ko ageriko eztabaidak, obligaziozkoak ziren.

Frai Bartolomeren kasuan hizlaritza edo sermoigintza oso garrantzitsua zen. Lege berriak Moral eta Zuzenbide Kanonikoa ikasten zen hiru urte hauetarako uzten zuen sermoigintzan trebatzeko saiok egitea. Filosofian erretorikako arauak ikasi zituzten, baina orain ariketa praktikoen<sup>50</sup> garaia da. Saio hauek oporraldian egin ohi ziren eta komunitate osoaren aurrean; jantokian nahiz koruan.

#### 4. AITA BARTOLOME MARKINAN: PREDIKARI ETA IDAZLE.

##### a. *Frai Bartolome Markinan*

Bederatzi urteko ikasketak burutu ondoren, Frai Bartolomeri komentu bat ezartzen diote bizilekutzat. Orangoz, haren lehenengo destinotzat, guk dakigunez, Markinako komentua dugu,

<sup>48</sup> *Instrucción de los colegios...*, 50. or.: "el aprovechamiento de los Moralistas padecería notabilísimo atraso, si sus Lectores exigiesen la letra de las autoridades de Concilios y Padres que fecundan el Moral".

<sup>49</sup> *Instrucción de los colegios...*, 53. or.

<sup>50</sup> *Instrucción de los colegios...*, 58. or.



data ziur eta zehatzik ez badakigu ere. Dena dela, Bartolomek, 1815.ean, "Apuntaciones" delako kontaeran... azken 13 urteetan, hau da, 1802. urteaz gero, predikari-kargua<sup>51</sup> izan zuela diosku.

Litekeena da lehenago Larrean egon izatea...

Lehenengo eta behin, Bartolome Markinako karmengo komunitatera doanean, hau erlijioso ugariz osatzen zela gogoratu behar dugu. Honela, esaterako, 1804ko urrian 24 fraide ziren (18 mezako eta 6 ez-mezako)...eta bi zerbitzari (bata baratzaina eta bestea organista)<sup>52</sup>...

Garai honetan idazle klasiko handi bat hil zen Markinan: Joan Antonio Mogel (1745-1804), Frai Bartolomek Markinako Karmengo predikari-karguan oraindik urte gutxi zeramatzala. Hain zuzen ere, Joan Antonio Mogelen heriotzari dagokionez, Frai Bartolomeren gutun bat gordetzen da, Kalahorrara idatzia, moral-ikasketetan, geroago bere adiskide min izango zen Joan Jose Mogelen prestutasuna agertzen zuela; gutun horretan adierazten digu, Joan Josek bere osaba Joan Antonioren eskolak hartzen zituela honen heriotzara arte, 1804ko<sup>53</sup> maiatzaren 16ra arte; eta harrezkero, Karmengo komentura joan ohi zela Bartolomerengana.

Garai honetan Joan Jose Mogelek harreman handia zuen Bartolomerekin, gutun honek agertzen digunez... biak adiskide minak izango ziren eta lan batzuk argitaratzeko nolabaiteko elkarlanean arituko ziren, gero ikusiko dugunez.


## b. *Predikari*

Bartolomeren alderik ospetsuena predikari izatearena da, hitzaldi kateketikoen argitalpenean izan zuen jarduerarekin ba-

<sup>51</sup> *Apuntaciones...*, in: Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiria*. Larrea - Zornotza, 1992, 768. or.

<sup>52</sup> GKPA, G, Markina, "Relación de lo acaecido entre la Junta subalterna de sanidad de la N.Villa de Marquina y esta Comunidad sobre fixar la guardia en la Portería del Convento": 1804 (1819). (MKA, A-1-55).

<sup>53</sup> CEA, 1/102/1, carta de Bartolome con fecha de 1804-VIII-2.



tera... Beraz, jarduera hau Karmengo Ordenaren barruan eta garai honetan izan ziren euskal predikari bikainen ingurumarian kokatu behar da.

Predikari-lana karmeldarren komentuetan izan ohi zen ofizioetarikoa bat zen; kargu oso garrantzitsua, izan ere. Komentu bakoitzean, predikari ofizial<sup>54</sup> bat izan ohi zen gutxienez. Konstituzioek kapitulu bat eskaintzen diote predikari-ofizioari; eta Ebanjelioa aldarrikatzeko zereginak, predikariarengan, prestutasuna eta jakinduria eskatzen dituela esanez hasten da; beraz, filosofiako hiru urte egin behar ziren, teologia eskolastikoko beste hiru eta teologia moral eta zuzenbide kanonikoko<sup>55</sup> beste hiru. Igandero arratsaldeko otoitzaldian ordu erdiko hitzaldia egin behar zuen, kristau-doktrina herriari aldarrikatuz. Gainera, beste festaburu batzuetan ere predikatu behar zuen, esaterako, S. Elias, Karmengo Ama, S. Jose, Santa Teresa eta S. Joan Gurutzekoaren<sup>56</sup> jaietan. Baina, Trentoko Kontzilioak agintzen zuenez, ezin zezakeen inork sermoirik egin apezpikuaren baimenik gabe.

Bartolomek berak diosku 1615. urtean 13 urte zeramatzala Markinako<sup>57</sup> Karmengo predikari karguan, hau da, 1802.ean hasita gutxienez. Ziur dakigu, 1808ko ekainaren 4ko Probintziako Definitorioan Bartolome izendatu zutela Markinako<sup>58</sup> predikari. Baina priore izatea eta predikari izatea bateraezinak zirenez gero, Bartolome Markinako Karmengo priore hautatzerakoan, A. Jose Gurutzekoa<sup>59</sup> izendatu zuten predikari 1817ko maiatzaren 5ean.

<sup>54</sup> *Constitutiones...*, 164. or.

<sup>55</sup> *Constitutiones...*, 162. or.

<sup>56</sup> *Constitutiones...*, 164-165. or.

<sup>57</sup> *Apuntaciones...*, (in: J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 768. or.).

<sup>58</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio de la Provincia de San Joaquín de Navarra*, 7. or.

<sup>59</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 139. or.

Predikariak liburutegi ona behar zuten, eta legeek bibliotekaz arduratzea eskatzen zuten, beharrianen arabera. Nagusiek, bai erlijiosoen beharretarako eta bai arimen onerako, beharrezko ziren liburuak erosi behar zituzten; batez ere liburu espiritualak eta deboziozkoak; gorde eta gehi bitez egunetik egunera honelakoak eta bestelakoak eta eros bitez argitarara daitezzen<sup>60</sup> autore serio eta garrantzitsuen liburu berriak...

Beraz, Bartolomek liburutegi ederra izan zuen bere ikasketetarako, 1809.era arte, eta gero ere Eliz Guraso santuen liburu garrantzitsu batzuk gorde ahal izan zituen. Bere sermoi eta liburuetarako erabili zituen iturriei buruz, gero ikusiko dugunez, Bibliako testuez gainera, Eliz Gurasoak erabiltzen eta aipatzen ditu sarri-sarri eta bere garaiko maisu handiak ere bai. Eliz Gurasoen artean, San Agustin eta S. Joan Krisostomo agertzen dira gehien, eta hauen ondoren, Jeronimo, Ambrosio, Basilio, etab.; eta maisu handien artean Akinoko Tomas santua...

Nortzuk izan ziren Frai Bartolomenen maisuak? Erretorikan, legeek diotenez, Frai Luis Granadakoa izan zuen maisu... Baina sermoigintzan, jarduera gisa harturik, ezin dugu ahaztu Euskal Herriko sermolarien ingurumaria, eta bereziki euskarazko sermolariena, horretan nabarmendu baitzen, hain zuzen ere, Bartolome...

#### *Frai Bartolomek ezagutu zituen sermolari euskaldunak*

Bartolomek, oraindik gazte zela, ezagutu zituen Markinan bertan bi sermolari eta idazle. Ongi dakigu Joan Antonio Mogel ezagutu zuela, hau Xemeingo Andre Mariako erretore zela; eta ez zion entzun soilik egin bere elizan, baita irakurri ere haren liburu kateketikoak, XVIII-XIX. mendeetan hain oihartzun handia zutenak eta lehenago aipatu ditugunak.

Gaztaroan, karmeldar izateko asmotan zela, ezagutu zuen geroago berarekin komunitate berean bizi izango zena: Aita Migel San Frantziskorena (Migel Zuzaeta, 1745-1814). 1808 in-

<sup>60</sup> *Constitutiones...*, 145-147. or.

guruan, Frai Bartolomek hartuko zuen haren lekua predikari-karguan; Frai Migelen sermoiak orain dela gutxi izan dira argitaratuak<sup>61</sup>. Frai Bartolomeren ondoren, honen komunitateko bi lagun agertzen dira predikari karguan: 1817.ean A. Jose Gurutzekoa<sup>62</sup>, eta 1820.ean A. Jose San Joakinena<sup>63</sup>... Eta urteak joan urteak etorri, sermolari bikainak izan dira Markinako Karmenen<sup>64</sup>.

Baina Euskal Herrian zehar ospe handia zuten hainbat predikari zeuden. Euskaraz oso ospetsua zen Agustin Kardaberaz (Hernakikoa, 1703-1770), Jesulaguna; A. Sebastian Mendiburu Jesulaguna, Oiarzuarra (1708-1782). Gure artean, aipaturiko hauen osperik ez bazuen ere, herri-sermolari gisa ezaguna zen Frantzisko Antonio Palacios Oinatarra eta Frantziskotarra (1727-1804), etab... Entzute handia izan zuen, erdaraz egiten zen lurraldeetan, Pedro Antonio Kalatayud Jesulagun iruinxemeak (1689-1773); Clement d'Ascain (Jean Duhalde) (1693-1781) kaputxino azkaindarrak...

Bartolome Markinako Karmengo komentuko predikari ofiziala izan zen 1802-1817 bitartean; Markinako gainerako elizetan, ingurukoetan eta Bizkai osoko elizetan ere asko ibilia zen...

Izan ere, *Plauto Bascongado* lanaren argitaratzaileak (Joan Jose Mogel), Frai Bartolomeren adiskide mina eta hau ongi ezagutzen zuenak, idazkiaren egilea, Frai Bartolome, aurkeztean hitz hauek esango ditu: "Carmelita Descalzo, natural de San Andres de Echevarria del Señorío de Bizcaya. Bien conocido en el País bascongado de la parte de España, no solo por sus Escritos, que ha dado a luz en dialecto bascongado; sino tambien por haber corrido el mismo muchos de los pueblos de la

<sup>61</sup> Ik. Fr. MIGEL SAN FRANTZISKORENA - FR. JOSE JESUS-MARIARENA, *Idazlanak*, Markina-Xemein, 1997, 11-225 (Edizioaren Prestatzaileak: Frantzisko Ondarra - Antonio Unzueta), (Karmel-Sorta, 10).

<sup>62</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 139. or.

<sup>63</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 240. or.

<sup>64</sup> Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*, Lanea-Zornotza, 1992, 400-411, 490-494.

Bizcaya, Guipuzcoa, y Navarra basca, en los que en desempeño de sus religiosos deberes ha tratado por necesidad con toda clase de personas bascongadas<sup>65</sup>.

### c. *Idazle.*

Trentoko Kontzilioaren erabaki eta irakatsiek gune garrantzitsu bat markatzen dute kristau-bizitzarako Euskal Herrian eta, beraz, baita euskarazko liburu kateketikoak idazterakoan ere. Kristauen erlijio-hezieren zerikusi zuzena zuten Kontzilioko erabaki ugarien artean, igande eta jaiegunetan sermoiak egiteko agintzen duena dago; elizetako erretoreei ezartzen zitzaien egin behar hori; hau da, baztertu behar diren jorra txarrei buruz eta praktikatu<sup>66</sup> behar diren bertutei buruz kristauei predikatuak egitea. Kontzilioak berak ireki zuen bidea, Bartolomek<sup>67</sup> hainbat bider aipatzen duen Erromako Kristauei argitaratuz. Eta lehia honetan gailenduko zen Bartolome Karrantza nafar entzutetsua 1558.ean Anberes-en argitaraturiko "*Comentarios... Sobre el catechismo Christiano*"... lanarekin.

Baiona, Iruñea eta Kalahorrako elizbarrutiek bat egin zuten lehia honetan, baina guretzat pozgarriena, eta bestalde behar-beharrezkoa, argitalpen kateketiko hauek euskarazkoak izatea da. XVI. mendean Euskal Herriko elizbarruti bakoitzean kristau-ikasbide bana argitaratu ziren euskaraz.

Bartolomek, karmeldar zenez, zenbait betebehari aurre egin behar zien liburuak idatzi eta argitaratzeko. Idazle-agiria behar zuen lehenengo eta behin. Eta liburua argitaratu aurretik Definitorio Jeneralari aurkeztu behar zion. Honek, bi zentsore-

<sup>65</sup> *Plauto Bascongado*, 4-5. or.

<sup>66</sup> C. de Trento, s.5, de reformatione, c.2. (Ik. Luis RESINES, *La catequesis en España. Historia y textos*, Madrid 1997, 187-189, 412-435.orr.; BAC maior 56).

<sup>67</sup> *Catechismus ex decreto Concilii Tridentini ad Parochos, Pii Quinti Pont. Max. iussu editus*, Roma, 1566. Fray Bartolome cita en sus *Icasquizunac* 38 veces.

ren iritzia jakin ondoren, onetsi nahiz gaitzetsi egingo zuen. Bi zentsoreetariko batek teologia eskolastikoan aditua izan behar zuen. "Nihil obstat" edo baiezkoa erdietsi ondoren, egileak ez zeukan ezer aldatzerik, Definitorio<sup>68</sup> beraren baimenik gabe.

Gauzak horrela, 1815.ean idazle-agiria eskatzen agertzen zaigu Bartolome: "Se leyó otro [memorial] del P.Fr. Bartolomé de Sta. Teresa, que pide el pase a N.Ve. Definitorio General, en el que pide patente de Escritor, o se le renueve la que obtuvo en el año de 1815 despachado en nuestro convento de Nules: este Ve. Difinitorio decretó por votos secretos, pase a N.Ve. Difinitorio General con la advertencia de que si en el próximo Capítulo Provincial fuese elegido Prior, podría suspendersele si a SS.RR. les pareciere justo"<sup>69</sup>. Baimena berritu edota berretsi egingo diote ondorengo urteetan, 1816, 1817an<sup>70</sup>, etab. Alabaina 1817ko maiatzean ez diote agiria berritzen, Frai Bartolome Markinako komentuko Priore hautatu zetelako, kargu hau idazle-karguarekin bateraezina baitzen; dena dela, horrelakoetan, lan hori egoki bete dezakeen ordezkoko bat jartzeko ahalmena ematen dio, honako esalditxo hau gehituz: "podrá valerse por lo que respecta a las impresiones de algún religioso inteligente que haga sus veces"<sup>71</sup>.

Probintziako Definitorioko aktetan, liburuak argitaratzeko eskabideak ageri dira. Honela, Bartolomek erantzuna ematen die zentsoreek egindako oharrei, eta 1816ko maiatzaren 20an, Definitorioak baimena ematen dio liburua inprimatzeko; "sobre los Bayles del País"<sup>72</sup> dio hitzez hitz.. *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzeen neurrizco-gatz-ozpinduba...* liburuz, 1816.ean Iruñean argitaratuaz, dihardu agiri horrek.

Alde batetik, *Icasiquizunac* saileko lehen liburukia aurkezten du argitaratzeko baimen eske, baina bestetik, *Euscal-*

<sup>68</sup> *Constitutiones...*, 239-240. or.

<sup>69</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 525. or.

<sup>70</sup> MBN, 1650. esk., *Libro de los Definitorios Generales...*, 15<sup>a</sup>, 20. or.

<sup>71</sup> MBN, 1650. esk., *Libro de los Definitorios Generales...*, 20<sup>a</sup>.

<sup>72</sup> MBN, 1650. esk., *Libro de los Definitorios Generales...*, 4. or.

*Errijetaco olgueta...* liburutxoaren argitaratzeko baimena ematen diote agiri berean. Baina *Icasiquizunac* sailko lehen liburukia 1807.eraiko idatzia zuen jadanik, gordetzen den<sup>73</sup> eskuizkribu originaletik atera dezakegunez; 1816.ean argitaratuko zen, ordea, eta Iruñean, ez Bizkaian, 1807.eko eskuizkribuaren hasierako eskaintzan Bizkaian argitaratzekoa zela dirudien arren.

Kalahorrrako apezpikuen aholkuak eta Euskal Herriaren pre-miak gogoan hartuz, Bartolomeren asmoa, *Icasiquizunac* sailko lehen liburuki honen sarreran dioenez, apaizei laguntzea zen Jainkoaren Hitza euskaraz aldarrikatzen. Eta bigarren liburuan ere lehenengoan hasitako bide beretik joko du, bestelako zurrumurru batzuk entzun bazituen ere; hau da, hobe zitekeela azalpenak igandero ebanjelioei lorturik ematea... Baina Bartolomek, eginkizun hori beste batzuei<sup>74</sup> utziz, lehengo bideari eutsiko dio. Frai Bartolomek, teologian eta Elizaren irakaspenean eta autore ezagunengan oinarrituz, irakasten zuen. Horrela diotso hirugarren liburukiaren aurkezpenean, 1819ko abuztuaren 13ko datuz, Kalahorrrako apezpikuari, Atanasio Puyal eta Poveda-ri gaztelaniaz zuzentzen dizkion lehen sei orrialdeetan: "Yo no he hecho, Ilustrísimo Señor, en estas pláticas más, que reunir a un orden predicable analítico, claro, y breve, en cuanto le es permitido al Catequista, lo que es propio, urgente, y necesario a la gente de mi País, que casi toda ella vive de trabajo de manos en las montañas, como V.S.I. la ha visto en sus Santas Visitas, teniendo siempre a la mano el dogma de la Sagrada Teología, y el Catecismo Romano. Me he desviado con todo estudio de las materias abstraídas, y opina-

<sup>73</sup> MHA, 9/2549

<sup>74</sup> "Batzuk gura leuquee, Icasiquizun oneec urte barruco Domequetaco evangeliuagaz catiatuta egotia. Ez dinot, gaiquijago egongo litzaatequezala. Baina, ene ustez, ez leuquee onera gueijago euquico au gaiti. Erromaco Catecismua Curz jaunentzat, ta Eleisa guizonentzat cristinauben eracutsi osoraco eguin zan. Elisaco Batzaar, ta Jaquitun Nausijen ondo esatez jntzita, jasota dago, besteric ez eduban. Trentoco Batzaar Santubaren aguinduz urten evan arguitara. Baina orregaitik ez dago Catecismo aren eracutsija Domequetaco evangeliuagaz lotuta"... (*Icasiquizunac*, II, (II-II. or.).



bles. He cargado la mano sobre los abusos, ignorancias, o relajaciones mas comunes, y mas dificiles de corregir, despues de explicar la verdadera doctrina de cada materia. Solo resta, Ilustrísimo Señor, para que el Cielo bendiga estas sencillas pláticas, las riegue, y fecunde la divina gracia, y produzcan copiosos frutos”.

Probintziako Definitorioari zuzenduriko idazki batean, 1817ko maiatzaren 10ekoan, Bartolomek azken sei hilabeteetan idatzi dituen hitzaldiak komentu hartako buru egiten duenaren esku utzi dituela dio, Definitorio Jeneralak agintzen duenez, idazle-agiriaren jabe-dun jarraitzeko; honela dio: “Bartolomé da parte de haver entregado al R.P.Presidente de aquel convento [Markina] las pláticas que ha compuesto en el semestre presente a consecuencia de lo madado por el Definitorio General para continuar en el uso de la Patente de escritor”<sup>75</sup>.

Hurrengo urtean Frai Bartolomek, Markinako Karmengo prioreak, beste idazki bat agertzen du, 1818ko azaroaren 26an Definitorioak Palentzian eginiko batzarrean; honela dio: “solicita licencia para imprimir un libro de doctrinas catequéticas escrito por su razón en lengua Bascongada, y en V. Definitorio por votos secretos mandó se diese a censura al R.P.Damián de S.Teresa, Definidor de quella provincia residente en Lazcano y al P.Fr. Manuel de Jesús, lector de visperas en Pamplona”<sup>76</sup>. *Icastiquizunac* saileko hirugarren liburukia dugu hau.

## 5. KOMENTUAK IXTEA FRANTSESTEAN (1809-1813). BARTOLOME AIXILOTUA.

Frai Bartolomenen bizitzan eragin handia izan zuen frantses-  
teak, bere ondorio kaltegarri guztiekin, bai Bartolome berarentzat eta bai Markinako karmeldarrentzat, erlijioari eta kulturari dagokionez. Karmengo gertaera sozio-politiko eta erlijioso

<sup>75</sup> MBN, ms. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*, 20. or.

<sup>76</sup> MBN, ms. 1650, *Libro de los Definitorios Generales...*, 81. or.

horien erdian Bartolome aurkitzen dugu, haietariko askotan protagonista.

#### a. *Komentuaren aurkako salaketak*

Egoera sozio-politiko eta erlijiosoa gaiztotu egin zen. Alde batetik, ilustrazioak ateak irekitzen zizkien iraultza-mugimenduei; eta bestetik, irautzak piztu eta Napoleonek bere onerako erabilitako frantses abertzalekeriak erlijioarentzat eta Euskal Herriarentzat oso ondorio ezkorrak ekarriko zituen; gerrate urteak, erasoaldiak eta zalaparta sozio-politikoak zetoztela iragartzen zuen horrek guztiak.

Frantsesearen zalaparta sozio-politiko-militarra Bizkairaino iritsi zen 1808.ean, eta abuztuaren 4an Bizkaiko Gobernuaren Batzorde Nagusia eratu zen hiriburu eta elizate gehienen altxamenduaren ondorioz. Batzorde horrek bizkaitarrek soldadutzarako izenak eman ditzatela erabaki zuen; eta horrela, abuztuaren 8an, 16-40 urte arteko ezkongabe eta seme-alabarik gabeko alargunek osaturiko bi konpainia armatu eratu ziren Markinan. Udalak hil bereko 20an hiribildua janariz horni dadila agindu zuen, frantses tropek herria zeharkatzen bazuten ere badaezpada, eta inork haiei irainik ez egiteko<sup>77</sup>...

Irailaren azken egunetan sartu ziren Bizkaian estatuko tropak, eta urrian ingelesak gehitu zitzaizkien, Black jenerala buruzagi zutela. Frantsesek Durango eta Zornotza hartu zituzten; eta azaroaren lehen guduak izan zen, frantsesen armada garaile irtenik<sup>78</sup>.

Bien bitartean Frai Bartolomek Markinako karmeldar komunitate osoarekin batera, euria eskatzeko aitzakiaz, Andre Mariari, San Joseri eta Santa Teresari bederatziruurenak egiten

<sup>77</sup> MUA, C.19: *Libro de decretos...* (1806-1810), f.112v.; J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184. or.

<sup>78</sup> MUA, C.19: *Ibid.*, 135<sup>v</sup>.or.; MKA, A-1-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 2.or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754.or.); J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184. or.

ziharduen: eta hau "eskualdean ugari zebiltzan salatariengandik geure buruak habestearren", dio Bartolomek<sup>79</sup>.

Ez zebilen oker gure klasiko hau; hain zuzen ere, 1808ko abenduaren 30ean, J.J. Avril, gobernadore jeneralak bere erne-gu bizia agertzen zion udalari jakin zituzten berriengatik, Markinara bere tropak eramateko mehatxu eginez; eta berehala barruti hartan<sup>80</sup> zeuden armak entregatu eta bidaltzea eskatu zuen. Baina salaketa nagusia Aita Karmeldarren aurka zen: Markinako komentuko fraideek ordena publikoa arriskuan jartzeko zutela eta herriarengan zuten eragina probintziako<sup>81</sup> "frantses" gobernuauren aurka erabiltzen zutela.

Udalak, bere konfiantza erakutsiz, Prioreari jakinarazi zion Gobernadorearen gutun-agindu hau. Frai Bartolomek, Markinako fraide guztiak atxilotu eta Bilbora<sup>82</sup> eramateko asmotan zihardutela kontatzen digu. Halako arrisku eta salaketan aurrean, komunitateak Aita Frai Bartolome Santa Teresarena Predikaria bidali zuen Bilbora 1809ko urtarrilaren 2an, arazoa konpontzera, eta salaketak nondik zetozen jakitera. Eta horrela salatzailea ezagutu ahal izan zuen eta Gobernadoreak Markinara informatzaile bat bidal zezala lortu. Hain zuzen ere, 1809ko urtarrilaren 11n, Lino de Tavoja jauna, Dantzing-eko mariskalaren kapilaua etorri zen Markinara, bertako "Aita Karmeldar Oinutsen komentuko desakordioak zuzendu eta konpontzera". Eta udal-batzarrak, udaletxean urtarrilaren 12an bildurik, lau punturi erantzun behar izan zien. Hauek ziren hitzez hitz:

*"1.º. Si dichos religiosos han hablado mal del Emperador Napoleón y de su Hermano José Primero Rey de España.*

<sup>79</sup> MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754. or.).

<sup>80</sup> MUA, C.19: *Libro de decretos...*, 155. or.

<sup>81</sup> MUA, C.19: *Ibid.*, 155, 166.orr.; MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754. or.).

<sup>82</sup> MKA, A-I-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 3-4.orr. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 754. or.).

2º. Si han aconsejado a las jentes de estos pueblos de Vizcaya que no reconozcan a José por Rey y que no les obedezcan en nada.

3º. Si hacen rogatibas públicas para que Napoleón y su hermano José con todos sus Ministros oficiales generales, grandes y todos sus Ejércitos perezcan en la presente guerra.

4º. Y finalmente si aquellos malos frailes blasfeman y protejen por toda esta Vizcaya especies y noticias, tan ridículas que las jentes de todos estos Países acometerían luego si tuviesen armas contra las tropas de aquellos dos príncipes Hermanos<sup>83</sup>.

Udalak ezetza erantzun zion guztiari, fraideen alde eginez. Era berean San Andres Etxebarri, Barinaga, Berriatu eta Ziortzako elizate eta kabildoek ere haien alde irten ziren.

#### b. *Karmeldarren kanporatzea*

1809ko urriaren 14an utzi zuten komentua Aita Karmeldarrek, ohi zuten ospez Santa Teresaren bederatzizurrena eta jaia ospatu ondoren, baina ospakizun horiek bi egunez aurreraturik. Frai Bartolomek komentuko erlijiosoen zerrenda osoa ematen digu: 20 erlijioso koruko eta 6 anaia ez-koruko ziren; beraien artean pertsona aipagarriak ere baziren, predikariak, idazleak, baita gaixo eta zaharrak ere<sup>84</sup>...

Honi beste eragozpen bat gehitu behar zaio; hain zuzen ere, 1809.eko maiatzean, aurrez Iruñean zen teologiako ikastetxea 17 ikasle eta hiru irakaslekin Markinara aldatua izatea; hori frantses armadak Iruñeko<sup>85</sup> ikastetxea okupatzearen ondorioz izan zen. Frai Bartolomek hunkipenez eta tristuraz kontatzen ditu karmeldarrek komentuan igarotako azken minutuak.

<sup>83</sup> MUA, C.19: *Ibd.*, 165-166; Frai Bartolomek udaleko akta honen kopia zeukan, bere azalpenean lau puntuko testua hitzez hitz ematen baitu: MKA, A-1-70: BARTOLOME DE SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 6-7. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 755-756. or.); J.J. MUGARTEGUI, *La villa de Marquina*, 183-184. or.

<sup>84</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 1. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 753, 761. or.).

<sup>85</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 15. or.

Ziur aski Bartolomek berak, beste fraide batzuen laguntzaz, lortuko zuen azken orduan gauza batzuk salbatzea. Isilean aterra ahal izan zirela Eliz Guraso Santuen liburuak eta beste liburu batzuk, baita eliz-jantzi batzuk, Ama Birjinaren zilarrezko koroa<sup>86</sup> etab. Hala diosku berak: "se pudieron sacar furtivamente los SS.Padres y otros libros".

### c. *Frai Bartolome Santa Teresarena, atxilotua, eta Etxebarrin konfinatua*

Orduko egoera larria aipatzean, batzuek beren buruak arriskutan jartzen zituztela diosku sermoietan esandakoengatik: "algunos hablaban en el púlpito con sobrado riesgo de sus personas [...], que la criminalidad de Bilbao formó contra el P.Predicador de este Convento, que fue arrestado y sentenciado por un sermón"<sup>87</sup>.

1809ko abenduaren 17an atxilotu zuten Frantzisko Antonio Alzaa jaunaren etxean Bilboko Auzitegi Kriminaleko Anbrosio Egia Irigoien jaunak eta honen eskribaua zen Fernando Etxebarri jaunak; eta Bilbora eraman zuten; Frai Bartolomek, Etxebarrin, Pedro Alzaa jaunaren etxean zituen paperak eskuratu zituzten eta era guztiako lekukoak hartu ere bai. Honela diosku berak: "hasta a las mujerzuelas preguntaban aquellos Jueces de lo que el P. Predicador enseñaba en el confesonario". Atxilotzearen arrazoia 1809ko urriaren 14an, Santa Teresaren aurreraturiko jaiari egindako sermoia izan zen; komentutik alde egin behar izan zuten eguna zen hau.

Bartolome Madariaga jaunaren aurkako auzibidearen ondorioz, honek 1810.eko urtarrilaren 5eko epaia bete behar izan zuen; hau da, "aitortzak eta sermoiak egitea debekaturik izan zuen erreinuko baketze orokorra lortu arte"; eta Etxebarrin, bera jaio zen herrian, egon beharko zuen, beti ere jagonda,

<sup>86</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 18. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 760. or.).

<sup>87</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 9. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 757. or.).

“inolako okertzerik somatuz gero, Buruari adierazi beharra izanik”. Eta bere eskuizkributik epaiaren azken zatia kopiatuz, honela dio hitzez hitz: “Y por este su auto con fuerza y efectos de definitivo, y condenándole en las costas, asi los Sres. Presidente y Vocales del Tribunal criminal lo acordaron, mandaron y firmaron a cinco de enero de 1810. Bilbao. Tiburcio García Gallardo; Luis Juan de Elexaga; Juan José de Vildosola; Manuel María de Aurrecochea; Ambrosio de Eguía e Irigoien; ante mí José Ramón de Zamalloa”<sup>88</sup>.

Klaustrotik kanpora izan zen urteotan Etxebarriko parrokian ageri zaigu lanean. Honela, bere diru-saria jasotzen eta parrokiako “sakristautzan” dugu 1811, 1812 eta 1813.<sup>89</sup> urteetan.

Etxebarrin konfinaturik egon zenean izan zuen lanbide bitxi baten berri jakin ahal izan dugu; lanbide bitxia batez ere han zigorturik zegoela kontuan hartzen badugu: era ez-ofizialez udaleko idazkari-lana egin zuen. Berak idatzitako aktak 1812ko abuztuaren 21ean hasten dira eta urte horren azkenean bukatzen dira<sup>90</sup>.

Azkenez, 1813.ean amaitu zen frantsesen nagusitasuna. Gasteizko borrokaldian frantsesen gain lortutako garaipenaren berri uztailearen 27ko batzarrean eman zuten Markinan, hori ospe handiz *Te Deum* kantatuz eta jaialdiak eginez ospatzea erabakiz....

<sup>88</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 21. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 762. or.).

<sup>89</sup> BEHA, Etxebarria, (04-01), *Libro de cuentas de la 5<sup>a</sup> Fabrica de la Parroquia de la Antiga de S<sup>o</sup>. Andrés de Echevarria, principiado en el año de 1804*, 62, 66, 70, 72. or. “Sakristau” zereginen ageri da Kalahorrako apezpikategira 1813-IV-28ko dataz igorritako Frai Bartolomeren dokumentu autografoan (CEA).

<sup>90</sup> EUA, Caja 188-2, *Libro de Decretos*, 1809-1822; Frai Bartolomeren 25 orrialde autografo dira. Artxibo berean daude berak idatzitako 1814. urteko beste bi dokumentu ere, Etxebarriko konstituzioko alkateari eginak (EUA, caja 202); seis orrialdeko testua da, pertsona batzuen mesederako idatzia...

## 6. FRAI BARTOLOMEK KARMENGO KOMENTUA BERRESKURATZEN DU (1813).

Frai Bartolomek komentua berreskuratzeke izan zuen ardura goresgarria zen. Frantsesak joan zirenean, Predikaria Etxebarrin bizi zen eta, komentuz jabetu zen ahalik eta lasterren; "hondakin eta zikinkeriaz beterik, kanoizulo eta antzekoak zituela aurkitu zuen. Eta baratzea Aberriaren traidore agerikoeek harrapatu eta hartua. Eliza, berriz, mandategi bihurturik"<sup>91</sup>.

Komentuko fraideak handik urrun samar zeuden, kanporatu zituztenean han eta hemen asko barreiatu baitziren... Garai honetan, hau da, 1813.eko bigarren erdian, lege aldetik zalantza handiak zeuden komentuz, elizaz eta abarrez. Bestalde, esklaustrazio-egoera hartan, Frai Bartolomek ez zuen nagusien baimenik komentua berreskuratze lan zail horri ekiteko.

Baina Castaños Jenerala erregeorde gisa zuzenbide eta gobernu arazoetarako Gipuzkoan sartu zela jakin zuenean, Frai Bartolomek berak kontatzen digun bezala, 1813ko uztailaren 8an txosten bat aurkeztu zion Hernaniko hiribilduan; eta kanporatutako erlijiosoen egoera eta jasandako oinazeak kontatu ondoren, frantses harraparien "faltsukeria, gezur eta gaiztakeriari" aurre egitegatik hainbat erlijioso gaizki erabiliak eta atxilotuak izan zirela jakinaraziz..., "Jaun Txit Goren horri Markinako Karmengo etxekoei, izan ditzaten ondasun apurrak bilduz, komentuan sartu eta Komunitatean bizi izateko baime-na eskatzen dizu"<sup>92</sup>.

Bi egun barru, uztailaren 10ean, erantzun zuen Castaños Jeneralak honela: "luego que esta provincia disfrute alguna tranquilidad, se atenderá como es justo esta solicitud, oyendo al Ayuntamiento de Marquina, e informando la Diputación

<sup>91</sup> MKA, A-I-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 27-28. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 765. or.).

<sup>92</sup> MKA, A-I-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 28-29. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 765-766. or.).

para poner en ejecución los soberanos decretos de las Cortes<sup>93</sup>.

Jakina, Bartolome ez zen pozik geratu erantzun honekin, komentuan lehenbailehen sartzeko irrikaz baitzegoen; eta luzapen hori zela-eta beldur zen, Gorbenuak komentuaeren egoera negargarria ikusirik, habitaezinekotzat jo zezakeelako, teiltuak konpondu ezik neguan behera etortzeko arrisku handia batzuen. Horregatik Predikari ausartak, 1813ko abuztuaren 17an, komentuan sartzea erabaki zuen, komentuko eta baratzeko giltzak eskuraturik, eta aldi berean alkateari, Martin Lauzirika jaunari, jakinaraziz. Honek, kontalari berak dioenez, "berri on horregatik pozez beterik, ogerleko bat eman zion Aita horri Komentuan emango zen lehenengo mezarako limosnatzat<sup>94</sup>.

Biharamunean Frai Bartolome, abitua jantzirik, komentua garbitzen hasi zen: jendeak hala ikusi zuenean, bere kabuz joan zen komentura laguntza ematera, "eta eskualde osoetik joan ziren beren aituz, saski eta erratzekin komentuko garbi-ikuzia egitera, guztia garbi-garbi utzi zuten arte<sup>95</sup>.

1814ko urtarrilaren 4an jarri zuten Gure Jauna elizan; eta 13an itzuli ziren komentura priorea eta prioreordea; eta honela, apurka-apurka gainerakoak ere etortzen hasi ziren, Frai Bartolomek 14 erligiosorentzat-edo gelak prest baitzeuzkan<sup>96</sup>.

## 7. KARMENGO NAGUSI (1817-1820).

### a. *Frai Bartolome kargu berrian*

Korellan martxoaren 26tik apirilaren 4ra bitartean egin zen Probintziako kapituluari Frai Bartolome Markinako Karmengo

<sup>93</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 766. or.).

<sup>94</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 766. or.).

<sup>95</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 766. or.).

<sup>96</sup> MKA, A-1-70: BARTOLOME SANTA TERESA, *Apuntaciones...*, 30-31. or. (J. URKIZA, *Karmeldarrak Markinan*, 766. or.).



priore hautatua izan zen 1817.eko apirilean<sup>97</sup>. Horregatik, kargu hau beste kargu batzuekin bateraezina zen eta, esaterako, predikari, idazle eta abarrekin, Probintziako Definitorioak Markinako komentuko predikari ofizial A. Jose Gurutzekoa<sup>98</sup> izendatzen du 1817ko maiatzaren 5ean; eta bederatzi egun geroago, 1817ko maiatzaren 14an, Definitorio Jeneralak, "priore izatea eta idazle-agiria pertsona berarengan bateraezinak izanik, isileko botoz, idazle-agiri hori aldi baterako baliorik gabe uztea erabakitzen du, tarte horretan argitalpenik egingo balitz, erlijioso burutsuren batez horretarako baliatuz"<sup>99</sup>.

Izan ere, hiru urteko aldi horretan argitaratu ahal izan zituen *Icasiquizunac* saileko bigarren (1817) eta hirugarren (1819) liburukiak. Hala ere, bigarrena egin zuenean oraindik ez zen priore, predikari baizik.

Hiru urte hauetan eta ondorengo hiruretan priore-kargua izango du Frai Bartolomek. Eta komentuko buru bezala izan zuen jardueraz ohar gaitetzen, ikus dezagun labur bada ere, Legeek zer eginkizun ezartzen zioten prioreari, zehatz-mehatz betetzen baitzen<sup>100</sup>.

Prioreak komunitateko pertsonen osasun eta on espiritualaz arduratu behar zuen, baita komunitateko eguneroko bizitza ongi betetzeaz ere. Helburu hauek erdiesteko asteroko batzarrek egin ohi ziren komentuan, eguneroko bizitza aztertzen zelarrik. Komentuko administrazioaren gorabeherak, ofizio ezberdinetan nola jokatzeko zen, etxeko tokiak nola zeuden, esaterako, sakristia, administrazio-gela etab. Gaixoen arduraren berezia, haien maitasun handia erakustea.

<sup>97</sup> Kapinluetako aktak galduak dira, baina aurreko azken definitorioa apirilaren 26an izan zen; Probintziako kapitulu ondoren egindako definitorio berraren lehenengoa, berriz, maiatzaren 4an, ik.: BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 136-138. or.

<sup>98</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio...*, 139. or.

<sup>99</sup> MBN, ms. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales...*, 20f.

<sup>100</sup> *Constitutiones...*, 48-49, 84-86, 200-201, 300-305.orr., etab.

### b. *Prioreari dagozkion lanetan*

*Arazo ekonomiko batzuk.* Probintziako Definitorioko aktetan, Frai Bartolomek, Markinako Karmengo priore zen aldetik, Nafarroako San Joakin Probintzia Karmeldarrera bidalitako idazki batzuen albisteak datoz.

Lehenengo idazkia 1817ko azaroaren 5eko Definitorioan irakurri zen, eta bertan Markinako komunitateak Teresa Ituartek<sup>101</sup> egindako fundazioaren agiria hartu ahal izatea eskatzen du. Hurrengo urteko maiatzaren 4an, Burgosko<sup>102</sup> ikas-tetxerako eman beharreko 400 errealak barkatzea eskatzen du; hurrengo egunean Markinako Priorearen beste idazki bat irakurri zen, hamaika mila erreale<sup>103</sup> zentsutzat hartzeko baimena eskatzen duelarik.

1818.eko urte honetan azaroaren 4ko Probintziako Definitorioan Frai Bartolomeren idazki bat irakurri zen, "A. Baltasar Salbatzailearenaren<sup>104</sup> ihes egite eta kausa kriminalagatik sorturiko gastuak ordaintzea eskatzen zuelarik", baina Batzarrak honelako gastuak ezin direla ordaindu, erantzun zion, Probintziako Kapituluak egin arte.

*Udalarekin eztabaidak.* Karmengo komunitatearen eta Udalaren arteko harremanak onak ziren, eta bien artean elkaraitzea izan zedin kontu handiz jokaten zen. Hala ere, beste pertsona batzuk tarteko zirela, udalak bere iritzia ezarri nahi izaten zuen. Frai Bartolomeren garaian, hain zuzen ere, hiru gaitan-edo eztabaidak izan ziren, alderdi bakoitzak bereari gogor eutsiz. Hala gertatu zen, esaterako, komentuarien zati bat berreraikitzeke auzian, sanitareari zegokion auzian eta erlojua zela eta ez zela sortu zen gorabeheran, udalak komentuan ezarri nahi baitzuen erlojua.

<sup>101</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio* ..., 158. or.

<sup>102</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio* ..., 166. or.

<sup>103</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio* ..., 167. or.

<sup>104</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio* ..., 180. or.

**Frai Bartolomeren ospea**

Frai Bartolomek, batez ere sermolari eta idazle zen aldetik, geroago eta itzal handiagoa zuen Markina eta inguruetan; gizon zentzudun, aditu eta prestutzat zuten. Honetaz, adibide gisa, Ondarroan gertaturikoa aipatuko dugu.

1819ko otsailaren 7an bilera batean zeuden udal-aretoan eta korrituak ordaintzeko moduaz ziharduten eta aholku bila Frai Bartolomerengana jotzea erabaki zuten. Honela dator agirian: "Y así estando juntos y congregados por mi fe, se hico presente por su mrd el señr Alc<sup>e</sup> sobre los veinte y quatro mil rrs que se recibieron el día deiz y ocho de julio del año de mil ochocientos y siete de la testamentaria de Dn Franco Xavier de Armaolea sobre el modo de realizar el pago y si se deben pagar los intereses de quatro por ciento o no de la dha cantidad, y enterado el Aiuntamiento acordó consultar el punto con el R.P.Prior Fr. Bartolome de Santa Teresa del Combeno de Carmelitas descalzos de la Villa de Marquina; y para el efecto pongan el Señor Vicario como Testamentario de dha testamentaria, esta Villa y algún otro vecino que quiera, los datos que tubieren por combenientes en su razón, y con lo que resolviese dho P.Prior se conforme esta Villa"<sup>105</sup>.

**d. Frai Bartolomeren lehenego pausoak egoera politiko-erlijioso berrian**

Frai Bartolomek bere prioretzako aldia bukatzeko aste batzuk baizik falta ez zirenean, aldakuntza etorri zen egoera sozio-politikoan.

Errege Fernando VII.a, mugimendu iraultzaileari ezin eutsita, 1812.eko Konstituzioari zin egin beharrean izan zen; eta 1820ko martxoaren 7an konstituzio-bidea ezarri zuen Espainiarentzat, eta bide horretatik aurrera egitera gonbidatzen zituen guztiak. Honela, sistema liberala behin betiko ezarria

<sup>105</sup> BFAA, OUA, 4B, L/009: *Libro de Decretos, 1812-1826*, 168<sup>a</sup>.

izango zela zirudien Espainian, eta bake eta aurrerapenaren garaia ziurtatuz joango zela.

Nuntzioak, Aulki Gorenaren izenean, Gobernu berriaren esana egiteko ahokua eman zuen. Honela Espainiako elizarik gehienetan, zalaparta handirik gabe zin egin zioten konstituzioari.

Baina laster sortu zen erlijio-jazarpena. Hau datu estatistiko-etan antzematen da: Napoleon indarrez sartu eta izandako komentuen hondamena eta elijiosoen kanporatzeak gertatu ondoren, Elizak, 1814.etik aurrera berriro indartzea lortu zuen, gerra aurrean 49.365 erlijioso eta 2.051 komentu izatetik, 1820.ean 33.546 erlijioso eta 2.012 komentu izatera iritsiz. Eta orain, bi urtetan, 1820.ean gobernuak komentuak kenduz eta erlijiosoen kanporatzeak eraginez, erlijiosoen kopurua 7.244<sup>106</sup> izateraino jaitsi zen. 1822.ean Gortek kleroaren aurkako zapalkuntza-neurriak hartu zituzten, apirilaren 26an, agindu berriak eman arte apaizgintzak debekatu...

1812ko martxoaren 18ko dekretua betearaziz, konstituziozko alkateak, 1820ko apirilaren 11n, komentuko Prioreari Konstituzioari zin egiteko agindu zion. A. Bartolomek egun berean erantzun zion esanez, erregeordetzaren dekretu hura Erlijiosoen Ordenak ez zeudela emana izanik, erlijiosoen elkar-teei errege-zedulak jakinarazteko ohiko bidetik ez zetorrela eta..., Nagusien aginduen zain egongo zirela hura betetzeko...<sup>107</sup>

### 8. "ISLA"KO BASAMORTUKO NAGUSI (SESTAO, 1820-1824).

Markinan priore zela hiru urteen azkenerantz hasi zen egoe-ra sozio-politiko aldakorra, bere betetasunean bizi izango du orain Isla-ko Basamortua deitzen dioten komentuan, karmeldar komunitatearen buru izan zen lau urteetan. Eta, hain zuzen

<sup>106</sup> Ik. Manuel REVUERTA GONZALEZ, *La exclaustración (1833-1840)*, Madrid, 1976, 13-24. orr.; Idem, *Política religiosa de los liberales...*

<sup>107</sup> MUA, C.21: *Libro de decretos... 1815-1825*, 118<sup>a</sup>-119<sup>a</sup>.

ere, egoera latz honetan erakutsiko du Frai Bartolomek bere nortasuna. Harreman biziak eta zabalak izango ditu garai hartako pertsonekin, bai herri-agintariekin eta bai eliz agintariekin... Santanderko apezpikua ere miretsirik utziko du aholku emateko eta gobernurako zuen gaitasunarekin. Gobernu zibilak basamortuko komunitatea desegiteko asmotan ziharduen, eta asmo hori bazterrera utziarazteko lan zaila izango du Bartolomek bere gain.

### a. *Isla-ko Basamortu historikoko priore*

1820.eko apirilaren egin zen kapitulu probintzialean Frai Bartolome Isla-ko Basamortuko<sup>108</sup> priore izendatua izan zen.

Basamortuak esanahi berezia du Karmeldarren Ordenan, eta oso komentu gutxi dira izendapen hori dutenak; hauetan bakardade handian bizi ohi da erlijiosoa eta otoitzari gutziz emana. Karmeldarren Nafarroako San Joakin Probintzia edo Karmeldarren Euskal Probintzia eraiki zenean (1706), horretarako eginbide batzuk egin arren, ez zen horrelako fundaziorik egiterik Sestaon 1719.ean egin zen arte.

Basamortuko eguneroko bizitza bereziki arautua dago *Legeetan*; honela, adibidez, 1787.eko *Legeek* 11. kapitulua, nahiko luzea, eskaintzen diote bigarren partean<sup>109</sup>. "Basamortuko Konstituzio" bereziki buruz hitz egiten digu; hango erlijiosoen otoitzari emanda, bizimodu latzean sakrifizioak eginez eta bizitza espiritualari emanda bizi izateko helburua dutela, elizaren onerako, ofizio liturgikoa zeregin guztien ardatz dutela.

Haren eliz kokapenari dagokionez, herriz Bizkaian egon arren, garai hartan elizaz Santanderko elizbarrutikoa zela gogoratu behar dugu; horregatik ikusiko dugu Frai Bartolome hiri horretako apezpikuarekin harreman oso onetan.

<sup>108</sup> HAKA, A-III-2: *Libro de Becero del Desierto de la Isla*, 88ª (Prelado 34).

<sup>109</sup> *Constituciones*, 165-190.

**b. Aldakuntza problematikoak Basamortuan egoera politiko berrian.**

Hiru urte hauetan Gobernuak bere eduki ideologikoari ematen dio garrantzi berezia: honek, Konstituzioa zein beharrezko eta zein ona den sartu nahi zion gizarteari buruan, eta bere aldekoen bidez herria eskolatzeari ekin zion. Areago oraindik: Gobernuak, elizetako erretoreak, igande eta jaiegunetako homiliari Konstituzioaren artikulua bat eranstera behartzeko erabakia hartu zuen. Honela, elizgizonei burua makurraraztea lortuko zen. Gainera, honetan indar handiko bitartekoak erabili ohi zituen: prentsa eta elkarte abertzaleak. Prentsak oso-osoan eman zion erlijioaren aurkako zabalkundeari... inolako zigorrik jaso gabe.

Gorteak eliz erreformak egiten hasi ziren, horrela erlijio eta eliz erakundeen desegitea lorturik.

Eliza eta Estatuaren arteko banakuntza eragin beharrean, azken honek eliza mende hartu eta bere esanera erabili nahi zuen, Elizaren eskumena bidegabeki bere esku hartuz... Protestak izan ziren alde guztietan, eta horien guztien ondorioz, 15 apezpiku-hiri bete gabe zeuden, 11 apezpiku ihes eginda, hauen artean Iruñekoa eta beste 6 Estatuaren esku hartze horren ondorioz zisma-egoeran zeuden... Eta 1823.eko urtarrilean Espainiatik kanpora bidalia izan zen Aita Santuaren Nuntzioa...

1) *Bizimoldearen aldakuntza.*

Apirila oso garrantzitsua izan zen karmeldar Basamortuaren bizitzarako. Espainiako Gobernuak konstituzioari zin egiteaz arauak ematen hasten da, horrela erlijioaren aurkako jazarpenari hasiera emanaz. Bestalde, Karmeldarren Probitziako kapitulua egin zen, bi urrats erabakigarri emanik: Frai Bartolome Basamortuko priore izendatzea, eta komunitate honetako biziera aldatzea.

Egoera honetan, Euskal Herriko Probintziako Kapituluak Basamortuko fundazioa ziurtatu nahi izan zuen eta txosten bat igorri zuen Definitorio Jeneralera, maiatzaren 6an irakurri zelarik; honela zioen: "en atención al corto número de religiosos que hay en el Sto. Desierto de S. José de la Isla y dificultad de que se aumente, se solicita que se dispense la rigurosa vida de Desierto para poder enviar algunos religiosos a fin de conservar aquel sitio". Beraz, komentu hartan Frai Bartolomeren ardurapean egingo zen bizitza Markinako komunitatean egiten zenaren antz-antzekoa izango zen.


Frai Bartolomek Gobernutik geroago eta agindu okerragoak jasotzen zituen: 1820ko maiatzaren 16ko errege-dekretuaren arabera, "komunitate erlijiosoetan profesarik ez egitea agintzen da, Gorteen batzarra egin arte"; eta era berean "beren lursailak saltzea, trukatea nahiz bestereganatzea"<sup>110</sup> debekatzeko zaie.

## 2) *Konstituzioari leial izateko zina.*

Gainera zetozen arazo larriek hartaraturik, Frai Bartolome prioreak albait lasterren bete zuen Konstituzioari zin egiteko Gobernuaren agindua. Eta horren lekukotasun argia gera zedin, agiri hau idatzi zuen:


"Certificamos y confesamos los infraescritos R. P. Prior, y PP. Clavarios de este Santo Desierto del Carmen Descalzo, de San José de la Isla de la jurisdicción del Concejo de Sestao en la Provincia de San Joaquín de Navarra, como pr. Madado de N.M.R.P.Gral. Fr. Antonnio de la Soledad después de haber leído a la Comunidad la Constitución Política de la Monarquía Española, y a consecuencia de haber tomado posesión de su oficio prioral e infrascrito Prelado hoy día diez, y seis de mayo de 1820, tanto por el dicho Prelado, como por toda la Comunidad se ha celebrado la solemnidad de la juramentación de la Constitución Política de la Monarquía Española que y otros pres-

<sup>110</sup> HAKA, E-I-24



*Isla-ko basamortuko planoak (Frai Markos).*





*Isla-ko basamortua.*

cribe el Real Decreto de 16 de mayo próximo con Misa solemne, Te Deum, repique de campanas, y lo demás dispuesto.

Desierto de S. José de la Isla. Mayo 16 de Mayo de 1820. Fr. Bartolomé de Sta. Teresa, Prior.- Fr. Domingo de San José, Superior.- Fr. Agustín de San Miguel, Clavario.- Fr. Domingo de la Presentación, Clavario<sup>111</sup>.

Gobernuaren aginduz Ordenako goi-agintariak euren karguetatik kenduak izan ziren eta haien lekuan apezpikuak ezarri ziren; beraz, komunitate bakoitzak bere priorea hautatu behar zuen konstituzio garaian.

Azaroaren 28an egin ziren hauteskundeak Basamortuko komunitatean, baina Frai Bartolomek adierazi zion Apezpikuari, bere gutunean aipaturiko bi berriek ez zutela hauteskunderan esku hartu "para mayor seguridad de las elecciones; aunque al presente, en la misma carta están admitidos por V.S.I. de que nos alegramos, y le agradecemos a V.S.I. este nuevo favor"<sup>112</sup>.

Basamortuko Priorearen akta originala dugu: 13 erlijioso apaiz ziren: azaroaren 24an bildu ziren kapituluan, eta A. Bartolome Santa Teresarena<sup>113</sup> izan zen priore hautatua. Hautespen hau Santanderko apezpiku Joanek berretsia izan zen abenduaren 4an<sup>114</sup>.

### ***c. Hiru urteko konstituzio aldiari, komentua salbatzeko abalegintan.***

Frai Bartolomeren ekintzarik garrantzitsuena hain egoera sozio-politiko zailean komentua salbatzea izan zen; hau da, Isla Basamortuko komentua ez zezatela kendu. Horretarako lan eskergea egingo du, agintari zibil eta elizakoekin harremanetan jarritz.

<sup>111</sup> HAKA, C-II-24.

<sup>112</sup> HAKA, B-X-19, 1821-XI-29.

<sup>113</sup> HAKA, B-XI-20, 1821-XI-28.

<sup>114</sup> HAKA, B-XI-20, 1821-XII-4.

1820.aren amaieran eta 1821.aren hasieran, komentuetako antolaketa arautuz, dekretu eta idazkiak agertu zirenean, lehengo ere frantsestean itxia izan zen eta berriro itxiko zuten mamua airean zebilen. Gorago ikusia dugu nola eman zuten 12 erlijioso ez zituzten komentuak ixteko agindua herrian bakarra izanez gero, eta 24 ez zituztenak ixteko agindua, herrian bat baino gehiago izanez gero...

1821eko apirilaren 6an, Santanderko apezpikuak, bere iritzia agertu zion agintari politikoari. Sestaoko Basamortua ixtea ez zuela inola ere onartuko bere aldetik. Apezpikuak garbi aitortzen zuen fraideek han egiten zuten lan ederra eta bere elizbarrutiko komentu hark egin zezakeen zerbitzua<sup>115</sup>.

Egun haietan konstituzioko gobernuaren aurka altxamendua egiteko saioak izan ziren, eta Frai Bartolomek parte-hartze esanguratsua izan zuen bakeari eta konstituzioko ordenari eusteko. Frai Bartolomek buruzagi politikoari idatzi zion, zeharka bada ere, bere komentua ez ixtea lortu nahian, eta Ezker aldearen egoera sozio-politikoa eta berak izan zuen eskuhartzea azaldu zizkion. Eta Frai Bartolomeri buruzko albiste zuzen eta berberak kontatuak gutxi ditugunez gero, 1821eko azaroaren 6ko gutun honetan datorren testu *autobiografiko*aren atal handi bat jarriko dugu hemen:

“La localidad de nuestro Convento, puesto en el centro de una dilatada población de los Concejos de Sestao, Somorrostro, Baracaldo, Erandio y Lejona, de cuyos avitantes en sus dudas y apuros nuestro convento es su desaogo, nos han proporcionado en estos críticos y aciagados tiempos mil ocasiones de favorecer a la causa de la Nación, o a la odiosa facción. No me es permitido, Sor. En este sencillo y reberente escrito molestar la atención de V.S. con el detalle de estos hechos que ofresco justificarlos ni V.S. tubiere a bien. Con todo no omitiré unas reseñas en globo de nuestra conducta.

Ningún religioso de nuestro conbento se ha desbiado ni un momento de las ordenes dela superioridad. Todos, todos son


<sup>115</sup> HAKA, B-XI-14, 1821-IV-6.

Constitucionales, y aborrecen el Absolutismo, y despotismo. A esto se debe atribuir, como dice la pública opinión, en gran parte, de que no ha tomado armas para la facción, que yo sepa, ninguno de los Consejos de Sestao, ni de Portugalete, ni de Santurce ni del balle, de los bandos de Lejona, Erandio, y Baracaldo, que se sirven de nuestro convento, a excepción de uno, con quien tube una rina, y luego oy, que fue a la facción. Por navidades del año pasado sofoqué en su origen con mis razones y exsortos el levantamiento de 50 o 60 hombres, según me comunicaron, que estaban a toda prisa reuniendo armas para levantar el grito de la insurrección. Los convencí, los convertí y estuvieron por mí tranquilos en sus casas, y hoy es el día que están. He libertado mozos, ocultándolos y guardándolos en mi convento de la persecución de los facciosos; y están en sus casas. He aconsejado a varios Padres, e interesados de los facciosos, a que exsorten a los suyos, se valgan del indulto, lo que se a verificado en algunos, aunque no en otros. No a entrado ningún faccioso en nuestro convento. Ni se le a dado asilo al servilísimo. En los lanzes que se me han ofrecido con más publicidad y no los e podido remediar por mi mano, al punto e dado parte al Gobierno, como pueden acreditar el Sor Vedeá y el Sor Secretario de V.S.<sup>116</sup>

Frai Bartolomek, beré aldetik, ahalegin handiak egin zituen bere komentuaren alde. Santanderko apezpikuarengana soilik ez, beste eliz agintari eta herri-agintariengana ere jo zuen. Esaterako, Epainian Aita Santuaren Nuntzio zenari idatzi zion honako hau esanez: komentuak ia mirariz irauten zuela, eta orain Gorteetak azken dekretuen mehatxupean dagoela.

Isla-ko Basamortutik hurbileko udalek lege honen berri izan zutenean, Frai Bartolomeren komentua ere ixteko arriskuan zegoela oharturik, hara eta hona jotzen hasten dira Karmeldarrak han gera zitezen, bereziki beren herrientzat mesedegarri zirelako. Honela, goian ikusi dugunez Sestaoko udalaz gainera, ondorengo konstituzio-udal hauek dira Bilboko Buruzagi Politikoari eta Bizkaiko Diputazioari Isla-ko

<sup>116</sup> HAKA, E-I-32, 1822-XI-6.



Isla-ko basamortua.

Basamortuko Karmeldarrek han jarrai dezatela eskatu ziotenak: Barakaldo, Portugaleta, Plentzia, eta Leioa, Erandio, Trapaga eta Santurtze eta kontuan izatekoa da udal hauek arrazoiak ematerakoan eta haien alde hain sutsu jartzerakoan, hein handi baten Frai Bartolomek 1820.etik 1823.era bitartean egindako lanagatik dela; hau da, beren-beregi aipatu gabe, sermolari bikainaren lana dute gogoan... Gutun hauctan argiago antz ematen da Frai Bartolomeren nortasuna.

### 9. PROBINTZIALAREN AHOLKULARI (BURGOS, 1824-1826)

Isla-ko Basamortuan priore zela, garai hartako gertaera historiko-politikoengatik, dokumentazio ugaria dugu Frai Bartolomeren jokaeraz; orain, ordea, urte batzuetan ez dugu ia haren bizitzako inolako berririk. Izan zuen kargutik soilik atera genezake zerbaít haren jarduerari buruz, baina orokorki besterik ez, hark parte hartu zuen kontseiluko aktak ditugulako.

Frai Bartolome kargu berri honetan zegoen bitartean, aldakuntza sozio-politiko batzuk gertatu ziren, baina onerako, karlisten hamarkada (1823-1833)<sup>117</sup> hasia baitzen; horregatik agerikoa zen erlijio eta gizarte aldetik gauzak bere onerantz zihoa-zela.

Erljiosoen Ordenek urrats garrantzitsuak ematen zituzten barruko berrikuntzan eta espirituzko gainbeherakoa gaindizten...

Karmeldar Teresiarren Ordenak amasa hartu zuen 1823.ean erlijio-askatasuna berreskuratzean, eta Aita Jeneralak 1824ko otsailaren 14an Kapitulu Jenerala bildu ahal izan zuen Alcalá de Henares-en.

1824ko maiatzaren 8an Burgosen hasi zen Nafarroko San Joakin Probintziako kapituluan Frai Bartolome Probintzialaren

<sup>117</sup> Ik. Manuel REVUELTA GONZALEZ, *La exclaustación (1833-1840)*, Madrid, 1976, 13-24; FRANCISCO RODRIGUEZ DE GORO, *La Iglesia vasca en la época liberal (1808-1840)*, in: IX Congreso de Estudios Vascos (Donostia, 1984) 193-216, idem, *País Vasco, Iglesia y Revolución liberal*, Gasteiz, 1978, 430 or.

4. aholkulari hautatua izan zen. A. Bizente Santa Teresarena hautatu zuten Probintzial, lehenengo aholkulari Meltxor Hirutasunarena, bigarrena Santos San Domingorena, eta hirugarrena Jose San Bizenterena. Euskal Herriko Probintzia edo Nafarroako San Joakin, agintealdi honetan, 15 komentuz osatzen zen (Iruñea, Osmá, Korella, Tuterá, Peñaranda, Kalahorra, Burgos, Lerma, Logroño, Lazkano, Markina, Isla-ko Basamortua, Larrea, Balmaseda eta Alesbes. Prioretxe hauei Bilboko babes-etxea gehitu behar zaie), 339 erlijiosorekin (270 mezako, eta 67 ez-mezako)<sup>118</sup>; agintealdi honen hasieran, hau da, 1824.eko maiatzean 14 komentu ziren eta 306 erlijioso<sup>119</sup>. Euskal probintzia hau zen ugariena Aragoi-Valentziarekin batera, batez ere apaizei dagokienez; Espainian karmeldarren 8 probintzia zeuden, guttiz 1592 erlijiosorekin.

Frai Bartolomek nola jokatu zuen jakiteko bi iturri ditugu: alde batetik Ordenako Konstituzioak, kontseilua haren esanetara baitabil, eta bestetik gordetzen diren Kontseiluko aktak eurak.

Konstituzioen arabera<sup>120</sup>, aholkularia, kargu horretan dagoen bitartean, ezin da izan priore edo etxe bateko nagusi. Kontseiluak urtean bi aldiz bildu behar zuen, hau da, sei hilabeterik behin; zortzi egun irauten zuten bakoitzean. Zortzi eguneko kontseilu horretan egunero bilera bat gutxienez egin ohi zen bi ordukoa; eskuarki bi bilera izan ohi ziren, bata goizean eta bestea arratsaldean. Hark zituen eskumenen artean, filosofia eta teologiako irakasleak, ikasleen maisuak eta hauen laguntzaileak, etxe bakoitzeko predikariak etab. izendatzea zegoen.

Probintzialaren bi urteko agintealdi honetan bost aldiz bildu zen Probintziako Kontseilua: Burgosen, Larrean, Markinan, Burgo de Osman eta Iruñan.

<sup>118</sup> BAS, ms.194; *Libro del Definitorio...*, 461-462. or. arteko f.

<sup>119</sup> MBN, ms. 1.650, *Libro de los Definitorios Generales...*, 332<sup>a</sup>.

<sup>120</sup> *Constituciones...*, 272-279. or.

Azkenengo kontseilua, bosgarrena, Iruñeko komentuko bibliotekan izan zen 1826ko apirilaren 7tik 14ra bitartean; hamar bilera egin ziren<sup>121</sup>.

Hauek dira 1824.etik 1826.era bitartean Frai Bartolomek izan zituen eginkizun ofizialak. Hala ere ia ez dakigu ezer ere haren bizitzaz. Nekez jakin ahal izan dugu urte hauetan non bizi izan zen ere. Sestaoko Basamortuan izan zen profesu bateko zeremonian ageri da Frai Bartolome eta agiri horretan Burgosko komentuan zegoela eta hango komentuko zela esaten da. Lino Akesolok dioenez, beharbada, han eman ohi ziren moraleko eta zuzenbide kanonikoko irakasle ere izango zen ("probablemente regentaba también alguna lectoría en los cursos de Moral y cánones que allí se daban"<sup>122</sup>).

#### 10. SANTANDERKO APEZPIKUAREN AITOR-ENTZULE ETA AHOJKULARI (1827-1829)

Santanderren bizi izandako urte hauen ezaugarritzat han izan zituen bi ekintza hartuko genituzke: hiriko apezpikuari buruz-buru zerbitzatzea alde batetik, eta euskarari buruzko lan batzuk egitea bestetik.

##### a. Santanderko apezpikutegian izan zuen ekintza.

Santanderko Elizbarrutia berriki sortua zen, 1754. urtean. 1819ko otsailaren 21ean Juan Nepomuceno Gómez Durán izan zen Santanderko apezpiku izendatua. Haren apezpikualdiko lehen urteak konstituzio garaiko hiru urteei dagozkien garai sozio-politiko zailak ziren; garai horretan ezagutu zuen Frai Bartolome.

Orduan harri eta zur gelditu zen apezpikua euskaldun predikari ospetsuaren giza mailaz, haren nortasun intelektual eta espirituaiaz. Isla-ko prioretza 1824.eko apirilean bukatutik, Frai Bartolome Probintzialaren aholkulari izan zen hautatua gorago

<sup>121</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio*. . . , 384-395. or.

<sup>122</sup> Lino AKESOLA, *Idazlan guztiak*, I, 347.



ikusi dugunez, Burgosen egoitza izanik. Eta aholkulari izatea bukatu zuenean, Santanderko apezpikuak, hain gizon prestua beragandik hurbil izan nahirik, goi-nagusiekin ahaleginak egingen ditu Frai Bartolome bere aholkulari eta aitor-entzule gisa Santanderko apezpiku-jauregian bizi dadin; eta baita lortu ere.

Tamalgarria da garai honetako dokumentazioa galdu izana, jakina denez, 1941.eko sute handian Santanderko apezpikute-giko artxiboa suntsitu baitzen.

Hala ere euskal kulturaren garai honetan egin zuen lanaren berri badakigu zerbait, Markinako bere adiskideari, bera bezala idazle zen Joan Jose Mogeli egin ohi zizkion gutun luzeetatik, hain zuzen ere.. Honek bi liburuxotan argitaratu zituen.

1828.ean argitaratutako *Plauto Bascongado*, 125 orrialdeko liburuxoa Frai Bartolomek 1827.ean Santanderren idatziriko lau gutunez osatzen da. Lan honen muina, euskararen bidez, Plautoren iragan ilun eta korapilatsua, Lino akേശok dioskunez "tormento de filólogos y orientalistas"<sup>123</sup> argitzea. *Plauto Bascongado* argitaratzeak beste idazle batzuen erantzuna eragin zuen, esaterako, Mr. Fleury Lécuse idazlearena (*Plauto Poligloto*, 1828), eta, era berean, honi ihardestera dator Frai Bartolomereren *Anti-Plauto Poligloto*.

#### b. Málaga-ra (?).

Juan Apezpikua 1829ko uztailaren 27an Málaga-ko apezpiku izendatua izan zen eta urte bereko azaroaren 17an hartu zuen kargua. Eta egun batzuk lehenago, azaroaren 11n, Probintziako Definitorioan Frai Bartolomereren txosten bat irakurri zen. Honela dator akta-liburuan: "se leía un memorial del R.P.Fr. Bartolome de Santa Teresa, confesor y consultor del Sor Illmo. De Málaga en que pedía el pase al V<sup>o</sup>. Definitorio de Provincia (?) para poder permanecer en el Palacio de su

<sup>123</sup> Lino AKESOLO, *Fr. Bartolomé de Santa Teresa y su Plauto Bascongado*, Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País 24 (1968) 357-376). (*Idazlan guztiak*, Larrea - Zornotza, 1989, 1<sup>a</sup>.t., 323-338).

Ilma." Eta jarraian hauxe dator: "El V<sup>o</sup> Definitorio de la Provincia de Navarra deseoso de complacer al S<sup>or</sup> Obispo nuestro particular bienhechor dio muy gustoso el pase por votos secretos"<sup>124</sup>.

Hortaz, Frai Bartolome Málaga-rantz abiatu zen, eman zioten egiteko hori betetzeko. Ez dakigu zenbat denboran egongo zen han. Ziur aski urtebete edo igaro ondoren, alde egingo zuen Málaga-tik, Juan Nepomuceno apezpikua 1830eko irailaren 30ean hil baitzen.

#### **11. LAZKAON, NOBIZIOEN MAISU (1832), BERE HERIOTZARTE (1835-XII-11).**

1830-1831 urteei dagokienez, hau da, 1830eko irailaren 30ean hil zen Málaga-ko apezpikuaren aitor-entzule eta aholkulari izateari utzi zionez gero, ez dakigu ia ezer ere haren bitzaz.

Hain zuzen ere lan edo kargu berezirik gabe gelditu zelako, lehenxeago esan dugunez, Frai Bartolome, idazteko oraindik adin onean 53 urte zituela, idazki bat bidali zuen Probintziako Definitoria idazle-agiria eskatzen, 1831ko azaroaren 14an irakurri zelarik. Definitorioak baietza eman zion, baina Frai Bartolomek gobernurako gaitasuna erakutsi zuen eta idale-agiri hori indarrik gabe gera zitekeela adierazi zioten, hurrengo kapitulu probintzian priore hautatua izango balitz<sup>125</sup>.

Kapitulua 1832.eko maiatzean egin zen. Frai Bartolome ez zen priore hautatua izan, baina lehen definitorio probintzialak Lazkaoko nobizioen maisu izendatu zuen 1832ko uztailaren 7an<sup>126</sup>.

Nobizioen maisu izateak hartara buru-belarri emanda egotea eskatzen zuen. Kargu honekin osatzen da hark aurretik Ordena barruan eta Ordenatik kanpo izan zituen ofizio eta

<sup>124</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio*. ., 483 or

<sup>125</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio*. ., 525 or.

<sup>126</sup> BAS, ms.194, *Libro del Definitorio*...., 71, 82, or.

karguen zerrenda: Predikari, idazle, priore, ahokulari probintzial, Santanderko Apezpikuaren aholkulari eta aitor-entzule, (agian Burgosen irakasle ere bai)..., eta orain, bere bizitzan izan zuen azkenengo kargua, nobizioen maisuarena.

Lazkaoko nobiziatuko abitu-hartzeko aktetatik atera dezakegunez, Frai Bartolomek lan handia izan zuen nobizioekin, hauek asko zirelako batez ere. Frai Bartolomek kargu berri horri ekin zioenean, 1832.eko uztailean edo, 13 nobizio zituen bere ardurapean. Abuztuan nobizio gazteen onarpen-agiriak sinatzen hasten da. 13 nobizio koruko ziren. Eta geroago, 1832. eko urte berean eta 1833.ean zehar beste 33 nobizio koruko hartu zituen. 46 gazte hauetatik 28 bizkaitarrak ziren, 6 gipuzkoarrak, 5 arabarrak, 3 nafarrak, eta 4 Burgosko elizbarrutikoak<sup>127</sup>...

Lazkaoko Karmelen nabari zen bokazioen loratzea harrigarria zen, gobernuaren jarrera antiklerikalaren eraginez etenda gelditu zena.

Haren 46 nobizioen artean, historian zehar izan zuen garrantziagatik, bat aipatuko genuke, Lazkaoko semea bera: Manuel Santa Teresarena<sup>128</sup>, honek, ikasle zela, esklaustrazioaren ondorioak jasan behar izan zituen; Frantziara joan zen, eta handik berriro itzuliko zen 1867. urtean eta beste euskaldun batzuekin batera karmeldarren eraberritze edo errestaurazioari emango zion hasiera Markinako Karmengo komentuan (1868.eko uztailean); gero, Markinatik zabaldu zen berriro Karmeldarren Ordena Euskal Herrira, Espainiara, Indiarra, Ameriketara, etab.<sup>129</sup>

<sup>127</sup> GKPA, *Este Libro de Aprobaciones...* Lazcano, 81-128. orr. 81. orrialdetik 129.era artekoak, osorik edo zati batez nobizioen maisuak, Frai Bartolomek idatziak dira.

<sup>128</sup> GKPA, *Este Libro de Aprobaciones...* Lazcano, 108. or. Frai Bartolomek idatzi zuen 1833ko urtarrilaren 24an izan zen Manuelen abitu-hartzearen akta; Manuel Antonio Santa Teresarena hartu zuen izena, 15 urte, 9 hilabete eta egun bat zituela (haren gurasoak Ignacio Eloseggi eta Ana Maria Alvisu ziren).

<sup>129</sup> Julen URKIZA, *Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak*. Larrea - Zornotza, 1992, 122-241.

Lazkaoko Kartularioak haren gaixotasun eta heriotzaren berri zehatza ematen digu. 1835eko abenduaren 11n hil zen arratsaldeko 4´erdietan. Testuaren garrantzi handiagatik, oso rik agertuko dugu:

"El día 11 de Diciembre de 1835 en entre las cuatro y media de la tarde murió en este convento y santo Noviciado el P.Maestro de Novicios Fr. Bartolo de Santa Teresa de perlesía que después de haverle molestado por espacio de un mes, al cabo le privó de la vida, en todo el tiempo de su enfermedad sufrió con mucha paciencia y conformidad en la voluntad divina, y dio muestras de verdadero Carmelita Descalzo en los años que vivió. Fue Prior en el convento de marquina y en el Santo Desierto y a má fue Definidor de Provincia y últimamente Maestro de Novicios. Recibió muy a tiempo los santos sacramentos de penitencia, Viático y Extrema Unción, el de la penitencia repetidas veces y fue asistido de la comunidad en su última hora. Era natural de la Villa de Marquina [*beste esku batek Echevarria jartzen du lerro artean*], Señorío de Vizcaia y Obispado de Calahorra. Tenía de edad 67 y de religión 44 años. Su cuerpo está enterrado en la sepultura nº 9, separada de las antiguas"<sup>130</sup>.

### **Artxiboen laburdurak:**

BAS: Burgosko Archivo Silveriano.

BEHA: Bizkaiko Elizaren Histori Artxiboa -Archivo Historico Eclesiástico de Vizcaya (Derio).

BFAA: Bizkaiko Foru Aldundiko Artxiboa.

BKA: Begoñako Karmeldarren Artxiboa.

KEA: Kalahorrako Elizbarrutiko Artxiboa.

DEA: Donostiako Elizbarrutiko Artxiboa.

EUA: Etxebarriko Udal Artxiboa.

GKPA: Gasteizko Karmeldarren Probintzi Artxiboa.

<sup>130</sup> GKPA, *Libro de la fundación deste Convento... de Lazcano*, 76º.

- HAKA: Hoz de Aneroko Karmeldarren Artxiboa.  
IEA: Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboa (IEA).  
IKA: Iruñeko Karmeldarren Artxiboa  
KKA: Korellako Aita Karmeldarren Artxiboa.  
LKA: Larreako Karmeldarren Artxiboa (Zornotza).  
LOKA: Logroñoko Karmeldarren Artxiboa.  
LZMA: Lazkaoko Zistertarren Monasterioko Artxiboa.  
MBN: Madrilgo Biblioteka Nazionala.  
MHA: Madrilgo Historiaren Erret Akademia.  
MKA: Markinako Karmeldarren Artxiboa.  
MUA: Markinako Udal Artxiboa.

*Julen Urkiza*